

Ikerketa soziala eta politika publikoak (4). Pobretasuna Euskal Komunitate Autonomoan: Eraitza batzuk (1) (10). Ietien mailalco atentzioko zerbitzuetan integratutako lan sozia-iaren operatibizazioa (22). Profesio berriak gizarte eta osasun arloan (33). Profesio berrien garapena osasun, gizarte eta hezkuntzaren sektoreetan (34). Profesio berriak gizarte-zerbitzuen eremuan: Zalantza eta nahasmendua (38). Gizarte-zerbitzua eta enplegua baliourri psikikoentzat (42). Entrebista: José Ignacio Barrenetxea eta Joan Aristondo (49). Berriak eta iruzkinak (57). Bibliografia (61).

ZERBITZUAN

GIZARTE ZERBITZUETAKO ALDIZKARIA

2

UDA 1987



EUSKAL GIZARTE-ONGIZATE KONTSEILUA

SiiS

EDITORIALA

ZERBITZUAN

2

UDA 1987

Zerbitzuan aldizkaria sortzerakoan helburu nagusia, batez ere, Euskadiko zerbitzu sozialen ajenteengan gogoeta eta eztabaida errazteko tresna sortzea izan zen. Bistan da helburu hori ezin dela berehala lortu eta, beraz, behin eta berriro errepikatu beharko da komunikabide honek instituzioei, eta zerbitzu sozialekin zerikusia duten profesional eta erabiltzaileei egiten dien eskeintza.

Lenkidetza honen ondorioak ZERBITZUAN sortu eta orain arteko epean ez dira eragingarriak izan, aldizkariaren lehen bi aietan gonbidapena behin eta berriro luzatu badugu ere.

Irakurleak eskuetan daukan alea zerbitzu sozialen arlo oso desberdinetan lan egiten duten profesional talde baten partaidetza aktiboaz egina da, Erredakzio Kontseiluaren hasierako partaideekin eta etorkizunean lankide izan daitezkeen espertoekin batera, komunikazioa eta ideia eta esperientzien trukaketa erraztuko dutelakoan gaude, hori baita aldizkaria leial mantendu nahi zaion helburua.

Gaurkoan gai polemiko bati buruzko eztabaida hasten dugu, hau da, lanbide berrien eginkizuna zerbitzu sozialeidn.

Arazo sozialen eboluzioak berekin dakar ajente berriek programen diseinu burutzean eta tratamendu formula desberdinetan parte hartzearen beharra, baina ez dugu ahaztu behar lanbide berrien sustatzearen ideia atzean, premia hori kritikoki planteatzen duten iritzi askoren atzean bezalaxe, zerbitzu sozialen berezko interesari eta batez ere haien erabiltzaileei arrotz zaizkien nolabaiteko interes korporatiboak egon daitezkeela.

Behar-beharrezko deritzogu baita ere zehaztasun eta ordena pixkabat sartzea zerbitzu sarearen oinarritzko laguntza gisa premiazko laguntza zerbitzuen betebeharren analisisian, zeren eta sarriegitan era intuitibo hutsean eta berekin dakartzan arazo tekniko garrantzitsuak nabarmenki mespreztatuz lotzen bait zaio gai honi.

Arlo jakin batekin harreman zuzena duten gaiekin batera, hala nola atzeratuen lanbidea eta finkoak nahiko genituzkeen sailak, egunerokotasun osoa duen gai batetaz mintzo den artikulua dakargu, luzaroan aipatu gabea, agian honetaz mitzatzeari anakronismo hutsa gerta bide zitekeelako bere burua "ongizatearen gizartetzat" jotzen duen gizarte batetan.

Pobreziaren esistentzia, bistan badago ere, sistematikoki ukatua izan da, gertaezineko zerbait bezala juzkatua, edo gehienbat, gauza erabat marjinaltzat joa oparotasunaren gizarte deitzen zaion honetan.

Zerbitzu sozialek beraiek ere, ez dute gai hau kontutan hartu eta esan liteke zerbitzu moderno eta eboiuzionatu gisa homologatzeko saioan, zaila zitzaiela arduradun politikoei eta teknikoei orohar azpigarapena nozioari atxikita dauden arazoetan murgiltzea.

Hiido honetan ulertzen da zerbitzu sozialei buruzko literatura, pobreziaren adierazpen hutsa besterik ez diren arazoez gehiegi arduratu izana, pobrezia beraz baino, eta ekintza publikoak, gutxi edo asko trebatua arlo pertsonalari eta familikoari lotzen zaion hesparrura mugatuz, ihes egin diola egitura sozioekonomikoaren behar bezalako funtzionamendua zalantzan jartzen duen gai bati.

Zorionez gaiak sortu du interesik — kezkarik, hau litzateke hitz egokia— Europa osoan eta baita ere gure gizartean eta ugariak dira pobreziaren arazoa definitu eta kokatu nahi duten lanak. Zorionez politikoak onartu egin dute "Pobrezigunea" nozioa eta baita beren diskurtsoetan erabili ere, orain arazoa mugatu eta berehalako soluzioak bilatzen saiatu behar dugu.

Luis Sanzo, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Osasunketa sailak burututako pobreziari buruzko txostenaren zuzendariak, pobreziaren fenomeno korapilatsuaren ikuspegi nabardu bat eskeintzen saiatzen da, pobrezia erabateko eskasiarekin uztatzen duten hirugarren munduko imajinak baino urrunago joanez, noski— ez bait dago esan beharrik Euskadin egoera mugatua dela— pobrezia agintean dagoen testuinguru sozialean egoera nabarmen aurkakoa ulertzen duen ideia isladatzen duten dimentsio desberdin eta ugariak definituz.

Etorkizunari begira gai honi buruz eztabaida argigarri bat sortuko delakoan.

AURKIBIDEA

- 4 - Ikerketa soziala eta politika publikoak.
RAMON SAIZARBITORIA.
- 10 - Pobretasuna Euskal Komunitate Autonomoan.
Emitza batzuk (1).
LUIS SANZO.
- 22 - Lehen mailako atentziko zerbitzuetan integratutako lan sozialaren operatibizazioa.
RAFAEL MENDIA.
- 33 - Profesio berriak gizarte eta osasun arloan.
- 34 - Profesio berrien gorape-na osasun, gizarte eta hezkuntzaren sektoreetan.
SAGRARIO SANZ DEL RIO.
- 38 - Profesio berriak gizarte-zerbitzuen eremuan: Zaintza eta nahazmendua.
MANUEL VIGO.
- 42 - Gizarte-zerbitzua eta enplegua balio-urri psiki-koentzat.
IÑAKI BERECIARTUA.
- 49 - Entrebista: JOSE IGNACIO BARREMETXEA eta JUAN ARISTONDO.
- 57 - Berriak eta iruzkinak.
- 61 - Bibliografia.

Peter Wagner eta Hellmut Wollmann-ek lan interesgarri bat argitaratu dute "Revue Internationale des Sciences Sociales" (1) aldizkarian politika publikoak diseinatu eta aplikatzeko orduan Gizarte-Zientzien erabileran sistema politiko-administratiboek duten zerikusi eta eraginari buruz.

Gertakari batetik abitzen dira autore hauek, alegia, Suedia bezalako herrialde batzuetan beste herrialdetan baino gehiago baliatzen direla Gizarte-Zientziaz beren erabakiak hartzeko orduan, eta hortik abiatuz, alde bate-tik, sistema bakoitzaren jarrera-tipoan duen eragin historikoa ezagutzen saiatzen dira autore hauek eta ekin-tza publikoak ezaugarri na-



IKERKETA SOZIALA ETA POLITIKA PUBLIKOAK

zionalak ditueneko konklusioa planteatzera iristen dira, jadanik beste lanetan definitu izan dituztenak eta "ekintza publiko motak" (styles d'action publique, policy styles) edo kultura politiko-administratiboak deitu ohi zaienak, alegia.

Tradizio historikoaren aldetik begiratuta, bi herrialde-mota bereizten dituzten VVagner eta Wollmann-ek: Gizarte-Zientzien eta botere publikoen artean elkarrekintza bizi bateko tradizioa dutenak, jarraipen politiko baten testuinguruan, eta hauen artean Estatu Batuek, Suedia, Erresuma Batua eta neurri batean Frantzia ere jarriko genituzke, zeren eta herrialde honetan Finantz Ministraritzaren eta Planaren Komisaldegia-Planifikazio-organoei garai bateko ikerketa ekonomiko eta estatistikako institutuak erabili eta garatu bait dituzte. Alderantziz, aldaketa politiko erradikalak eman izan diren eta ikerketa-korronte behinenak (Francfort-eko Eskola Alemaniako Errepublikaren Federalean, Paul Lazarsfeld Institutua Viennan, Cramsci-ren lanak Italian) beren orientazio kritikoarengatik erreprimituak izan ziren herrialdeetan, ez dute lehen aipatuetan adinako oinarri empirikorik.

Interesgarria da benetan harako hipotesi hura, hots, bigarren taldeko herrialdeak besteak baino sentiberago zaizkiola Gizarte-Zientzien berpizkunde baten mitoari, batez ere zientzia horiek Estatu Batuetan eman duten aurrera-pauso izugarriari eta "eredu amerikano"ak gerra ondoko europar gizarteetan duen nagusitasun ideologiko-politikoari esker.

Baliabide teknikoaren eta ekonomikoaren eskasiak eta botere politikoaren indiferentziak, Elizaren eta izaera pribatuko erakundearen eskutik egotera behartu zuten ikerketa soziala. Wagner eta Wollman-entzat, ordea, berrogeitamar eta hirurogeiko lehen urteei lotuta geroago etorriko zen gorakada ekonomikoak ez ditu animatzen Europa kontinentaleko gobernuak amerikar, suediar eta britainiar esperientzian inspiratzera, Gizarte-Zientzietan espezializatuen eritzaren bila, merkatu nazional eta internazionala pixkana-pixkana liberalizatuz joatearen ondorioz hazkunde ekonomiko garrantzitsu bat lortzen duelako, iharduera ekonomikoak zuzendatzeko administrazioek dituzten gaitasunak begien bistan jarri beharrik izan gabe.

Zentzu honetan Wagner eta Wollmann-ek erlazio bat aurkitu nahi dute Gizarte-Zientziak estaltzeko joera deituko genukeenaren eta ekonomia politiko liberaleko adskribapen-gradu edo mailaren artean, eta seinatzen dute hain zuzen ere Alemaniako Errepublika Federaleko eta Italiako gobernuak —politika horri leialen zaizkionak— direla beren ekintza Gizarte-Zientzietan oinarritzearen etsaienak. Normalean —diotenez— aski dute erregularri adituen komiteetara jotzearekin eta, araua berresten duen salbuespenaren modura, ikerketa sozio-ekonomikoez baliatzen dira italiar hegoaldean ematen diren problemak eta Alemania Federalean desoreka erregionaletatik eratorritakoak aztertzeke.

Edvard Shils-ek dioenez ordea, "governuek ekono-

mian esku hartzera eta honen planifikazio orokorra egitera gero eta gehiago jotzen duten neurrian —eta Probidentzi Estatuaren terrenoa irabazten ari da zentzu honetan—, agintea egikaritzen zaien gizataldeak xehetasun handiagoarekin ezagutu beharra ere gero eta haztena da (2).

Eta horrela, noski, ikerketa sozialen eskaria ere egunean baino egunean handiagoa da, batez ere "erreforma-aldiak" deitzera eman izan direnetan, hauek sistema politikoak gehiago esku hartzera jotzen bait du, eta segurtasun eta arrakastako marjinak handiagotzeko bidea bilatzen politi-

"helburu politikoetarako sistematikoki erabiltzen den lehen disziplina" eta gizarte-zientzien artean "zientifikoa" alegia, eta ondorioz, adierazle ekonomiko eta kontabilitate nazionalen sistemei adierazle sozialen elaborazioak jarraitzen die, horrekin egin nahi izaten dena ekonomiaren aldaketak ezezik gizartearenak ere aurrikustea delako.

Zentzu honetan Wagner eta Wollmann-ek lotura bat ikusten dute aztertutako herrialdeetan gobernu erreformistak inestauratzearen, Probidentzi Estatuaren nozioaren hedapenaren eta ikerketa sozialaren eskaria gehitzearen artean, botere



ka publikoen formulazioan eta exekutapenean, bere iharduketak informazio zientifiko "objektibo" batean oinarrituz.

Esan liteke, "ideologiaren azkena" iragartzen dutenei arrazoi emanez, errealitateari bete-betean egokituz eta ideologiaren eztabaida alferrikako arazo bihurtuz neurriak hartzeko bidea emango duen "gizartearen ezagupen" batera iritsi nahi litzatekeela. Jarraitu beharreko eredu ekonomikoak markatzen du.

publikoen ekintza zuzentzeko saio batean.

Konkretuki Espainiari dagokionez, autoreek aitortzen dute kasu honetan "aldaketak atzematea zailagoa dela Francoren bezalako erregimen itxuraz geldi eta zurruntz batean, eta hala ere 1965 aldera gertatzen diren erreforma ekonomiko moderatuek ere, ekintza publikoaren azterketarako baliabide eskariaren gehikuntza bat suposatzen dute. Espainia ekonomia mendebaldeko

sistema kapitalean txertatzeko neurriak hartzen direnean, ikusten da nola agertzen den ekonomi plangintzaren nozioa eta horretarako instrumentu batzuen sorkuntza. Administrazio batzuek ikerketarako beren barne-unitateez hornitzen dira eta Estatistikako Institutu Nazionala (INE) sendoa gotu egiten da, ekonomia-aren eta gizartearen bilakae-rari urratsez urrats jarraitzearren".

Azken batean, berrogeitamarreko azken urteetatik hirurogeitamarrekoen lehenetara bitartean, aparatu politiko-administratiboa gizarte-zientzietan espezializatutako baliabideetara hurbil-

eta, epe luzera, gizarte-talde guztien interesean neurri razionalak hartzea gauza hobea delako ustean alegia.

Hain zuzen ere autore hauek berek beste lan batean (3) erregimen politikoa-ren eta ekintza publikoaren analisi eta ebaluaziorako joeraren arteko harreman-lotura posibleak ezartzen saiatzen dira, eta konklusio batera iritsi, alegia, ekonomi garapena politikoki harmonizatu eta sustatu, eta gizartearen babesa ere sendotzeko desiratzen dauden gobernu erreformistek ekintza publikoaren ebaluazioaren eskaria kitzikatu egin dutela, gobernu kontserbadoreek azterketako instrumentu hori eza-

Suedian badirudi ekintza publikoaren ebaluazioa hain txertatua dagoela tradizioan, non gobernu kontserbadore eta sozialdemokraten arteko txandakatzeek ez bait dute era nabari batean murrizten ebaluazioko ikerketen bila gizarte-zientzietara jotzeko interesa.

Espainiako kasua esan liteke justu-justu kontrakoa dela. Hitzez hitz emango dugu VVagner eta Wollmann-ek eskaintzen dioten azterketaren partea:

"1982ko hauteskundeen ondorioz boterera iristean, espainol sozialistak erabakiak daude buelo handiko aldaketa sozial, ekonomiko eta politikoak egitera; badirudi beraz ikerketa sozialean eta partikularzki estudioan eta ebaluazioan inspirazioa eta laguntza bilatuko lukeen erreforma-politika baterako kondizio guztiak ematen direla. Orain, buruzagi politiko eta goimailetako funtzionari sozialista asko gobernuan edo administrazioan sartu aurretik unibertsitariak izan diren arren (Maravall esate baterako soziologo ospetsu bat zen hezkuntzako ministrari bihurtu aurretik), alferrikakoa izango litza-teke erlazio bera aurkitu nahi izatea erreforma-politikaren elaborazioaren eta gizarte-zientzietako ikerketaren artean. Zergatik? Lehenik gizarte-zientziek arlo honetan joka dezaketen paperari gobernu sozialistak garrantzia kendu nahi izatea, kalkulatu politiko bat delako zalantzarik gabe: politikaren munduko maila guztietan gehiengo argi bat lortu izatean, zenbat denboran eutsi ahal izango dion ez dakiela, nahiago du azkar eta modu ausart batean jokatu, luzeak



tzeko joera bat ematen da herrialde guztietan. Ematen da baita politika eta gizarte-erabat modernizatu eta erreformatzeko borondate komun bat ere, "koalizio erreformistak" eratzuz, eta herrialde askotan modu erabakior batean eragiten dute Probidenti Estatuaren ekintza-eremua garatzen eta botere politikoaren interbenzionismoa areagotzen. Eta iniziatiba horiek oso zabaldua dagoen uste batean bermatzen dira: politika publikoaren elaborazio zientifikoa

batu egin nahi izan duten bitartean, ikerketa/ebaluazioa bestelako gaietarantz berorientatuz.

Egia da aztertzen diren errealitate sozio-politikoaren kopuru mugatuarengatik, arauaren edozein salbuespenek arau hori berretsi ez baina serio konprometitu egiten duela. Eta salbuespenak badaude egon, Suediaren kasuan esate baterako edota Espainiarenean konkretuki.

izango liratekeen eta eztabaida berriak sortuko lituzketen azterketa-emaitzei itxaroten egon gabe. Bigarrenik, administrazio-sistema oso zatikatu batean (gorputzezkoan) garatu den erregimen burokratiko introbertitu eta autonomoak bizirik iraun du erregimen-aldaketa eginda gero ere, eta horrela ez dago inola ere prest kanpoko informazio bila hasteko".

Botere politikoak ekintza publiko motaren funtzioan gizarte-zientzietan ikertzeaz hartzen duen jarrerari eta administrazio-estiloari buruzko arazo hauez aparte —gai horiek, gure ustez, argi aski adierazten dira eta eman dugun koadroan—, hemen interesatzen dena da ea benetan arrazoi duten Administrazioaren aldetik gizarte-zientzien erabileran gainbetera bat ikusten dutenek eta arrazoi baldin badute zergatik eman den 50 eta 70eko urteetako "ezteio"en ondorengo desenkatua.

Wagner eta Vollmann-ek arrazoiaren parte bat behintzat izan behar dute politikariak bapateko emaitzak lortzeko dituen presez hitz egiten dutenean, presa horrek atzera egin erazten bait die edo ikerketa sozialera jotzen ez utzi behinik behin soluzio eraginkorren bila. Baina ez da gutxiago egia, beraiek seinalatzen duten bezala, "zientziak" defraudatu egin dituela politikariaren igurikapenak, hauek gutxi-asko arrazoizkoak ziren ala ez kontutan hartu gabe.

Hasteko, estudioaren eta ikerketaren fruituak ez dira hirurogeiko hamarkadako "zientifismo"aren erdi-erdian


espero ziren bezalakoak; izan ere, orduan, errealtatearen azterketa zientifikoak erantzun bakarretara bezain eztabaiaezinezkotara eramango zuela uste bait zen, zientzian oinarritua zegoelako.

Igurikapen horien alde-rantziz, ordea, gizarte-zientziek errealtatean egiten dutena da problematika bat beraren hainbat interpretazio eskaini eta ekintza-proposamen desberdinak justifikatu. Hau da, azken batean, eztabaida ideologikoa ordeztu beharrean aberastu egiten dute gizarte-zientziek.

Zentzu honetan, politikaria, bere planteamendu ideologikoen aldeko emaitzak

ere beste modu batera hartutako erabaki politikoak bermatzeko.

Egitate hau sarri askotan teknikariaren aldetiko ezgaitasun bat bezala ulertzen du politikariak bere ekintza-ahalmen oso konkretuen markoan dituen beharrei erantzuteko. Politikariaren moral propioaren eta ikerlariarenaren arteko oposizioaren tesi VVeberiarrean sartu gabe, kontua da kritika soziologikoak, askotan politikariari oso baliagarritasun eskaseko gertatzen zaien "guztiaren emendakin" bat bezalako zerbait suposatzen duela eta problemei aurpegi emateko proposamenek gainditu egiten dute-



eskaintzen dizkionean bakarrik oinarritzen da ikerketan. Esan daiteke beraz berak egiten duena zera dela, errealtatearen edozein ikuspegi zientifikotik kanpora sortzen diren proposamen jakin batzuen legitimazioa eskatu ikerlariari. Izan ere asko baino gehiago bait dira horren ordeztuko mekanismo politikoak, hala nola klientelismoa edota zenbait presio - talderen ahalmena, hauek ez dute eta hain beharrezko egiten ikerketa soziala, ez bada hain zuzen

la "posiblearen artea"ren kontu hori erabiltzen dutenen borondate politikoa, inobilismorik erabatekoena justifikatzeko koartada bezala.

Politikariek bapatean baliabide tipikoen —ospitale-ohere, eskola-postu, etab.en— terminotara eta beraz epe laburrerako errentagarritasun politikoaren terminotara gauzatu ezin daitezkeen gizarte-beharrez bestelako espresioak onartzeko duten zailtasuna egongo litzateke, api-

IKERKETA ETA KOIMTSULTA EKINTZA PUBLIKOAREN ARLOAN

ESTATUA	EKINTZA PUBLIKO MOTA	ADMINISTRAZIO-MOTA	GOBERNUA-ADMINISTRAZIOA	PARLAMENTUA	INTERES-TALDEAK
Ameriketako Estatu Batuak	Gatazkatsua (Kongresua-Lehendakaria) (instanzia federalak-Estatuak) alderdi "zientifikoa", ikerketa erabakiak lantzeko erabilia den neuman, alderdi "polemiko"an, eztabaida politikoa erabilia den neurrian, aktibos, razionala, polemikoa eta partidista.	Adminisrazioak, prozesu politikoa-ren parte bezala ulertuta, gizarte-zientziarako ikerketa oinarrituak Jnformazioa erabiltzen du barne mailan eta kontratu bidez.	Azterkeia-eskari hainbai eta intentsuagoa zenbai eta zatitua aurrizten den boterea, azterketarako barne-zelua rahiko indansuak, ikerketa kaniriala handian kontratu bidez.	Azterkeia-eskari handia kongresuaren aldetik bere ikerketa-unitate propioez baliatuz gehienetan eta konuatu bidezkoez neurri txikiagoan.	Ikerkeia amolatu eia finanEalki laç un-tzeko ahalmen eskasa.
Suedia	Kontsensuzkoa. planifikazio razionalista batez eia interbenzionismo aktibobatez karakterizatua.	Organo administratibo eta gobernu-koen aneko bananketa, inzialbak garrifici handia du ekintza publi-koabiagoizeari dagokionez, tradizio legalistaren murriztapena? gizarte-zientziaren oinarriurko informaziorako irekidura.	Eskari handia , batez ere pñestakuntzako faseetan, xede bezala soluzio razional eta komensuzkoak aurki'zea izanez, parte inplikatu guztien partaidetzarekn , parlamentuaren papera oso txikia da; ondorengo ikerketa/eb'ljuzioa gutxiago garatua bere kontsensuzko Ofentazioaren ondorioz.		
Austria	"Lagun sozial"ezko sistema korporatibisa, gobernuaren ekintzak funtsean ados aktore sozial nagusie-nekadierazitako interesekn , kontsensuzkoa, aktibo samarra, interben-tzionista.	Adminisrazioa, gobernuaren ekintzari eusteko esku hartzen bait du, patrimonialista da tradizioz. partaidetzaren aldekoa eia erabiltzaile-arengana zuzentzen da, uadzio legalista gutxituz doa pixkana-pixkana.	Konsuha-baurdeak; gobernuak, funtsean, "indar sozialak" besarkaizen dituzten erakundeen baitan aurretiaz eztabaidatutako konklusioen "hartzaille" bezala funtionacen du, iharduera pixka bai ekintza publikoko zenbait arlo espeffikotan .	Inolako ihafduera propiorik gabe.	rofesionalen txostena interes-ialc'e-tara egokitzeko prozesu polir 'oa dominacen dute, ikerlari propioak dituzte eia irabazi-asmorik gab sko helburuekiko ikerketa independ entean oinarrien dira.
Alemaniko Errepublik Federala	Gaiatzatsua samarra (gobernu/opsizioa, mstantzia federalak/Landerak). Hirurogeitarreko urteetatik hona halako "zientifikazio" bai ager-tzen da ersbakiak hartzeko orduan gizarte-zientzielako ikerkelez balia-tuz; gainGrakoan, polemiko samarra ikerketaren erabilerari dagokionez alderdiaren argumentazioan.	Botere-tradizioa eta ixosteneiarako (legaletarako) errekonsoa, kontutan izaten du konsuha-komseiluen eritza, zabalik dago azkenaldion gizarte-zientzielatik elortzen den informaziora.	Tradizio handia kontsulia-bacorde, eia b.en entziak inguratzeari dago-kionez; ikerkeiako instituten sor-kuntza ministraritzen anparoon, him-rogeitarreko urteetati zehar "ad hoc" batzordeak praktikan jartzen dira, eta gero eta gehiago jotzen da kontratu bidezko ikerketara.	Ia esateko ez dauka egiturarik ez kreditu propiorik ikerketarako, azierketarako ahamienei buruzko eztabaida oso berriaren berreskurape-na, deliberazio publikoak gizarte-zien-tzielako espezialisten panaidetzarekif.	Jkerketarako ahalmen apala.
Japonia	Kontsensuzkoa. "triparlidismoa" gobernu / adminisrazioa / enpresamunduaren artean, merbentzionis-ta , planifikaizalea; eztabaida/kontsensuzkoa.	Zuzendatzako paper garrantzitsua, kontsensuzko orientazioa.	Barne-egitura gutxi iferketarako; dbaz djmoko ikerketa-institutuetara fhink tanks-etara) jotzen du bati-pat f ed d retiazko azterkeiak eskatzen d	Ez azterketako unitaterik ez ikerke-tarako fondofik.	Ugazaba-ganbarek (eta hein bati'an baita langile-organizazioak ere) beren ikerketa-institutu propioak; dituzt'.
Erresuma Batua	"Burokratiko"; kontsensuzkoa, erreakziozkoa bolunlarismo eia gaiatzakortasunerako joera azkenaldion.	Funtzio publiko indartsua eta tradizioz "neutroa", gehienagoenn "xandaketekin" adatu gabe beren osae-rann, goiko mailatann ere, autonomia eta autoasktea elistarako joera, elka-rrekiniza handia funtzionarien eta erabiltzajleen arian.	Bezero bezala, kontratupean egindako ikerketa zehazien du, nagusi-tasunezko papera minisiraritzek eta departamentuek; nahiko interes gutx kanpoko ikuspunuekiko.	Oso paper ixikia, "ad hoc" batzordeek ikertzen dute, kasua baliif, arazoei buruz.	Oso paper Kikia; kontsultaz aier-keta ordezen du.
Frantzia	Aktiboa. imerbentzionists; auioritarista bere baitan bildutako sistema politiko-administratibo razionalis(a, parlamemu-konfroiako funtzioak gubi garatuta.	Korporazio-izpiriua, legalista, konkurentzia tekniko handia eskola handieian hanulako formazioari esker, imerbentzionismo leknokratikoko adminisrazio-ideologia .	Barne-azterketa oso garatua, ia irtolako baliabidsrik gabe kanpoko adi-tuentzai oraindik orainsuko alda-keta batzuk eta hirurogeiko urteetan ekinza publikoko zenbait arlok eramandako ikerkefaren "kontratu-lizazio-politika" salbu.	Oso paper txikia, oraindik berriki izandako debeteak Parliamentuaren azterketako funzioak sendozean buruz.	OSD paper uMa-, 'j-jra berria eko-nomi politikari bur'ro ikerketan ere aktiboagoan parte hbtzeko ("pluralizazioa").
Espania	Interbentzionista boluntarista demokrazioaren erabateko berrezarpenetik (1982tik) gatazkatsua samarra (alderdien eta botere zemralaren eta ins-tantzia erregionalen arteko enfren-tamendua).	Tradiziozko korporazio-izpiriua; legalismoa , gizarte-zientzien laguntza eskatzeko joGra eskasa.	Ikerketa gutxi eskatzen d9 kanpoal-dera, ministraritzarteko azterketa-zelulak beregeifamarreko uiteen azkenalditik ona.	Ez aztefkeia-uniiaterik eta ez kredi-lu propiorik kontrai bidezko iker-ke-taren fitantzaketarako.	Ikerkeia-unrtate "ordezleak", nier-katal bankuek berrogetamam 'ko urteetan sortuta.
EM/M	Ahtlezia gobernuaren eia adminis-trazio zentralaren aldeik; erreakziozkoa, gatazkatsua, eztabaidatsua-panidista.	Ideologia eta iradizio legalisiak; praktika klientelisiak; gizarte-ziemziek produzitutako jnformazioa erabiltzeko joera eskasa.	Minisiraritzen menpeko ikerEta-insmutu batzuk. nahiko efikazia gutu -koak (baliabide-falta. praktiiks klientelisia); tradizioz konsuha-komie asko, erregio bacueian emaitza hobek ematen dituzien iharduera "ordezkalzaileak".	Ez azterkeia-egiturarik ez fondo propiorik.	Iharduera "ordezkaizaleak" ind usriaren eta, oraindik berrikiago. :in-dikaiuen aldetik, bolere pubNkoek antolatutako ikerketa-egituren f'ilita konpenisatzeko.

ka, gizarte-zientziekiko aipatu deskontsiderazio horren oinarrian.

Ikerketa sozialeko profesionalari gogaikarrien zaiona, agian, zera da: estamentu politikoan deskontsiderazio horrekin. batera zientziaren laguntza "objektiboa" erabiltzeko joera nabari bat ematen dela, batez ere interpretazio batzuek —eta beti daude interpretazio bat baino gehiago— alderdiaren argumentazio politikoak sendotzen lagunduko dutela aurrikusten denean edota ikerketara neurri urgente eta gutxi-asko bidezkoak hartzeko posibilitatea atzeratu beste asmorik gabe jotzen denean.

Gisa honetako erabilerek gutxiago gogaitzen dute seguru asko teknikaria, botere politikoak historian zehar sustaturiko ikerketa askok izan duten destino azken batean batere ez duintua-sungabe horrek baino, hau da destino horren aztarrenik ematerakoan lan bat "kajoian geratu dela" esaten denean baino.

RAMON SAIZARBITORIA

(1) Wagner, P. eta VVollmann, H.: "La participation des chercheurs en sciences sociales a etude et a l'elaboration des politiques publiques; elements d'analyse comparee". Revue Internationale des Sciences Sociales, n.º 110, 1986.

(2) VVagner, P. eta VVollmann, H.-ren aipamena.

(3) VVagner, P. y VVollmann, H.: "Les fluctuations de la recherche en evaluation: sont-elles liees aux changements de regime?". Revue Internationale des Sciences Sociales, n.º 108, 1986.

FUNDAZIOAK FINANTZAKETA ZIENTIFIKOKO ORGANISMOAK	"FUNZIONAMENDU- PROFILA"	ERAKUNDEAITEKO LOTURAK
Paftaidetza hartdia epe ertain eta luzeko problemeara zuzendutaka gzarle-zibntzibitako ikerketan.	BarnB-unitateak administrazio federa- ralen eia Kongresuaren baitari : sek- iore pribatuarent ikerketa , partaidB-Ba moderalua unibertsitateetan.	Adminisrazioetako eta Kongresuko unitateak; delibrazioak (adituen kom- teak) Council of Advisors.
Oinarritzko ikerketara zuzenduak fun- isean.	Batzardeak , inshiuu publikoak; imeres- taldeekin lotu iaok instituiak; sek- to - publikorako kontratuen exekif-tapena zientziaren sektorekako politika baten barnean, unibertsitateen par-taidelza handia. hauen zientziari buruz-ko kontzepzioa problemetara zuzen-dunko zientziarena delako.	Bacordeak fatsean barne-unitateren balzuek.
RintsBan oinarritzko ikerkeEan inte- resatuak.	Irabazi-asmirik gatieko bi ikerkeia- insitutuk beteBen dute politika publi- koetarako ikerketaren paper nagusi- siena; inslitutu gehienak lamaina Kikidak; unibersitateen partaidetza Bskasa.	Komsuta-batzordeak erakunde kor- poratista eta ministraritzen inguruan .
Inolako partaideszark ere ez ekintza pjblikoioi buruzko ikerkefaren finan- tzaketan.	Unibertsitateen panafdetza eskasa (oinarritzko ikerketari ematen bait diote lehentasunah ikerketako insti-lulu paraestatal garrantzitsuak minis-traricen anparoon; SBktore pribatuaren partaidetza garrantzitsua iker-kelan.	Ministriarietatik hurbil dauden kon- Bulla-batzordeak; parlamentu-batzor- deak, konsulta-kontseiluak (ekono-mia eia ingtirugirpari buruzko ara-zoetaz); "ad hoc" batzprdeak (ekipp bereziak).
E npresaren sektiorearekin lotuak fun-d azioak funtsean ikerketa-bulego pri-b gtuei enkargatutako ikerketak finan-fc aluz.	Estudio-kabinete pribatuen nagusi- goa; oso pattaidetza eskasa uni- bertsitateen aldetik; aurretiazko azter- keten lehentasuna.	Kontsulta-organoak eta ikerketako taldeak soitu dira oraindik berriki ministraritza, prefektura eta zenbait udaletan.
G arrantzi apala.	Oriemazio akademikokp unibertsia- teak; iraaeres akademiko eta pnlii- koen adiskidetzat ikerkeia-kontseilu bati esker, sektorekako politika zien- tifikoa; barne-uniateak; ikerkeia- iharduera pixka bat sektore pribatua- luaren aldetik.	Ikerketa-kontseiluak , batzordeak eta parlamentuko ikerk(Bla-baizordea.
C 30 paper txikia; ihardaera nabaria azemko f'ndariaen aldetik berro- L. iilamar ota hirurogeiko urte lar; lierke*-konsailuaren antzeko orga- nio balen sorkuntza hirurogeitama- ri ekoHtan; oraindik orainsu arte, aamzi erakunde en irakaskuntzarako orienrazioa.	Ikerketako barne-egituren nagusita- suna, ikerketa bacuk komraiui bidBZ; unibertTsitateen panadeizta urria mun-du intelektualaren eta politikoaeren arteko loturak estuceko joera berriki.	Ikerkela-kontseiluaren anEeko fun- tzionamBndu-organo baten agerpe-na hirurogeilamarreko uneetan, iker- k(BiarBn koordinazioaz arduratuiaok unilatB bat, Planean , administrazio- Bskolak.
Ifiziatiaba batzuk baina diru gutxi.	Ministraritza barneko zelulak; uni- bertsitate-ikerketaren paper apala-go firakaskuntzan); ikerketa pribatua- guixi garatua.	Kontsilari "pribalu"z inguraizBn dira gobemuko kideak.
Nolabaiteko garrantziko fundazioak ; orientazio poliiko orpkorrek; beren instituto propioak finantzatzen dituzte.	Administrazioaren menpeko institu- Tuek, ikerketa pribatu pixka bat unibertsitateekiko harremana, baina indibiduo mailakoa, unibertsitateen zuzeneko partaideca eskasa politika publikoei buruzko ikerkelan.	Kontsulta-komiteak; "ad hoc" batzor- deak ; BImnsntu erabakicaille publi- koBn errekurtsok o kptnsellari "pri- batu" engandik aholku o bartzeko.

POBRETASUNA EUSKAL KOMUNITATE AUTONOMOAN EMAITZA BATZUK (1)

Artikulu honetan eta aldizkari honen beraren hurrengo alean agertuko den beste batean pobretasunak gure herriaren duen eraginari buruz Euskal Komunitate Autonomoan egindako ikerketa baten emaitza nagusienak eskaini nahi genituzke. Lana bera, argiro bereizitako hiru partetan banatzen da:

- lehenengoan, ikerketa honetan erabilitako pobretasuna kontzeptuaren edukina jasotzen dugu labur-labur;
- bigarrenean, fenomenoak gaur egun duen zabai-goaren deskribapen bat ekartzen dugu;
- hirugarrenean, leku-arrazoiengatik ZERBITZUANen 3. alea argitaratuko denean, pobretasunak gure herriaren dituen kausei buruzko ideia batzuk iradokitzen ditugu.

1. POBRETASUNAREIM KONTZEPTUA

Lanbide arriskutsua benetan pobretasuna zer den definitzea eta, ondorioz, etxe bat, familia bat edota pertsona bat zein atalasetik aurrera pobre bezala kontzeptua daitezkeen definitu nahi izatea, batez ere ondo baino hobeto dakigunean, zein ere den erabiltzen dugun mugaketa, beti egongo direla gizarte-sektore batzuk problema badagoela ere edo behintzat bere zabalgoa ukatuko dutenak. Horregatik, nahitanahiezkua gertatzen da pobretasunari azterlan honetan zer definizio eman zaion argitzea. Eta definizio hori, lau puntu nagusitan oinarritzen da:

1. Hemen erabilitako pobretasunaren kontzeptuak

arazoaren ikuspegi zabal bat besarkatzen du, oro har zergatik zuzen-zuzenean erlazionatu gabe noski miseria gorriarekin, eskaletzarekin edota peitutasunarekin. Bere formulazio orokorrean, hainbat familia edo pertsona bizi diren herrialdeko bizimodu, ohitura eta iharduera normaletatik salbuetsita daudeneko egoera isladatzen du beste ezer baino gehiago. Esklusio hau ez da definitzen bizimoduak izan ditzakeen posibilitateen garapenik onenarekin konparatuz, baizik eta autua den gizartean gutxienez beharrezkotzat ematen diren bizikerak kontutan hartuz. Zentzu honetan, esklusioak, egia esan, desbantaila sozial esanguratsu bat suposatzen du pobretasunak erasandako familia eta pertsonentzat Deskribatutako pentsamen-

duaren bidetik, bada, geure egiten ditugu Europako Komunitate Ekonomikoaren markoan nagusitzen den pobretasunari buruzko kontzeptzioaren azpian dauden oinarritzko printzipioak.

2. Esklusio edo pobretasunaren kontzeptuak bi fenomeno hartzen ditu: alde batetik, **mantenimenduko pobretasuna**, etxebizitza, mantenua, jantziak eta oinetakoak bezalako oinarritzko gastuak, eta halaber beharrezkotzat ematen diren besotelako gastu arruntak ere —altzariei, garraioari eta denbora librearen gozamenari dagozkienak funtsean—, gutxienez gutxienezko batean estali ahal izateko etxerako sarreren ezaskitasuna bezala definitua; eta bestetik, **metaketako pobretasuna**, batezbesteko normalaren

aldean etengabeko ailegatu ezineko egoera bezala definitua kontsumo iraunkorreko ondasunak edukitzeko ahalbidean, etxebizitzaren eta honen ekipamenduaren ezaugarriekin zerikusirik dutenak edukitzekoan batez ere. Mantenimenduko pobretasuna eta metaketakoa, bi pobretasun-mota ongi diferentziatuak dira eta bakoitza bere aldetik tratatu beharra dago.

3. Definitu ditugun bi pobretasun-mota horiek, noski, larritasun-maila desberdinak aurkezten dituzte. Horrela, **mantenimenduko miseri** egoeraz hitz egin daiteke, bakarrik beren sarrearen maila janari, jantzi eta

oinetakoentzako behar minimoen azpitik daukaten familiez ari garenean. **Metaketako miseriak**, bere aldetik, metaketako pobretasunari elkartutako zirkunstantzia negatiboen areagotze bati egiten dio erreferentzia, ia erabateko gabezia baten antzekoa gertatuz. Etxebizitzara mugatuz, adibidez, esan daiteke metaketako miserian dagoen biztanleriaren etxebizitzak infraetxebizitza izatera jotzen duela —ur berorik gabea, bainu edo dutxarik gabea, hezetasun-problema jeneralizatuarekin, etab.—.

4. Pobretasun - motak ager daitezke era nabari batean edo era ezkutuan.

Zentzu honetan, era nabariak, jadanik eraturta dauden familiei erasaten dietenak dira. Pobretasun-era ezkutua, beren aldetik, famili unitate potentzialki independenteei erasaten dietenak dira, hau da, egoera normalean familia bezala eraturko ziratekeen eta ez badute horrela egin, hain zuzen ere beren gaur egungo egoeran pobreen kolektiboak areagotzera pasako ziratekeelako egin ez duten famili unitateak dira.

2. POBRETASUNAREN ZABALGOA EUSKADIN

Estudioaren emaitza nagusien deskripzioan, alde

1. koadroa.-MANTENIMENDU ETA METAKETAKO POBRETASUNA, POBRETASUN-MAILEN ARABERA

a) Egoera bakoitzaren % p/su erlatiboa, inkesta egindako biztanleria guztiari dagokionez

MANTENIMENDUKO POBRETASUNA					
	Guztira	Oso pobrea	Pobrea	1. ez-pobrea	2. ez-pobrea
GUZTIRA	100,0	4,9	26,7	27,6	40,8
METAKETAKO POBRETASUNA					
Oso pobrea	2,1	0,5	1,0	0,5	0,1
Pobrea	13,9	2,0	5,6	3,9	2,4
1. ez-pobrea	42,3	2,1	14,5	11,7	14,0
2. ez-pobrea	41,7	0,3	5,6	11,5	24,3

b) Egoera bakoitzaren pisu kuantitatiboa

MANTIMENDUKO POBRETASUNA					
	Guztira	Oso pobrea	Pobrea	1. ez-pobrea	2. ez-pobrea
GUZTIRA	594.000	29.100	158.600	163.900	242.400
METAKETAKO POBRETASUNA					
Oso pobrea	12.500	3.000	5.900	3.000	600
Pobrea	82.600	11.900	33.300	23.200	14.200
1. ez-pobrea	251.300	12.400	86.200	69.400	83.300
2. ez-pobrea	247.600	1.800	33.200	68.300	144.300

batetik, pobretasun nabari-ko egoerak, eta bestetik, pobretasun ezkutuko errealitateak bereiziko ditugu.

2.1. Pobretasun nabaria

Pobretasun nabariaren zabalgoa Euskal Komunitate Autonomoan, ondoko

Euskadin lazera edo miseriarik gorrieneko errealitatea dagoen frogarik argiena eskainiz.

2. Euskal sutondoetako beste %6 -35.600 inguru— harrapatzen ditu nolabait miseriak, nahiz metaketakoak nahiz mantenimendukoak.

—mantenimenduko pobretasunak gehienetan— erasana aurkitzen da, berorren larritasun-mailarik txikienean.

5. Guztira, euskal sutondoetako % 38,5 batek guxtienez pobretasun-motaren bat jasaten du. Termino kuantitatibotan, berriz, 228.000 sutondo inguru suposatzen du horrek.

Mantenimenduan oso pobreak diren sutondoan —hau da, elikadurako behar minimoei erantzuteko behar hainbateko sarrierarik gabeak bezala definitutakoan— egoera konkretua aztertuz, hauek euskal sutondo guztien %4,9 bat suposatzen dutela ateratzen dugu. Ez da pasatzen, ordea, gosea sutondo guzti hauetan. Praktikan, kapitalaz edo aurrezki metatuz baliatzeagatik, elikadura txarraren edo gosearen arazoak erasandako sutondoan portzentaia % 2ra murrizten da. Eta horrek, termino kuantitatibotan, 12.000 sutondo inguru suposatzen du, zifra benetan oso altua hala ere.

Pobretasunaren arazora hurbiltzeko enfoke diferente bat oinarritu daiteke orain arte definitutako pobretasun-motetako bakoi-tza ematen den ala ezkontutan hartuz. Erizpide hau aplikatuz —eta honi jarraituko diogu hemendik aurrera, konparazioak egin ahal izateko—, pobretasun nabariaren hiru mota sintetiko bereizten ditugu:

a) Bi motetako pobretasuna

Sutondoa bai mantentimenduan eta bai metaketan pobrea edo oso pobrea

2. Koadroa.-POBRETASUN-MOTEN LABURPEN OROKORRA

a) *Datu erlatiboak*

3. Sutondoan hirugarren

Pobretasun-mota	SUTONDO POBREA GUZTIRA		
	Sutondo guztien %	Sutondo pobreen %	Miseri kasuen % talde bakoitzean
1. Bi motak	9,1	23,6	38,5
2. Metaketa	6,9	18,0	8,5
3. Mantenimendua	22,5	58,4	10,8
GUZTIRA	38,5	100,0	17,0

talde batek —guztizkoaren % 5,6 bat eta 33.300 inguru suposatzen duenak—,

b) *Datu kuantitatiboak*

Pobretasun-mota	SUTONDO POBREA GUZTIRA		
	Sutondo erasanak	Sutondo pobreen %	Miseri kasuen % talde bakoitzean
1. Bi motak	54,100	23,6	20,800
2. Metaketa	41,000	18,0	3,600
3. Mantenimendua	133,700	58,4	14,200
GUZTIRA	228,800	100,0	38,600


koadro honetan isladatzen da, famili mailan hartuta:

Xeheki aztertuz gero, honako konklusio hauek lor-tzen ditugu:

1. Komunitateko suton-doetatik % 0,5 bat -3.000 inguru termino kuantitatibo-tan—, bai metaketa eta bai mantenimenduko miseriako egoeran bizi dira. Egoera hau defini daiteke "hiruga-rren-mundutarra" bezala bere zentzurik txarrean.

dena delako miseri moduan bizi gabe ere, pobretasun larriko egoerak isladatzen ditu. Eta zentzu honetan, bai mantenimenduko eta bai metaketako problemak aur-kezten dituzte.

4. Euskal sutondoan %26,4 bat, azkenik -ia 157.000-, soilik bi pobre-tasun-mota horietako batek



duten kasuak barne-hartzen ditu.

b) Mantenimenduko pobretasuna

Sutondoa metaketan ez baina mantenimenduan pobrea edo oso pobrea duten kasuak barne-hartzen ditu.

c) Metaketako pobretasuna

Sutondoa mantenimenduan ez baina metaketan pobrea edo oso pobrea duten kasuak barne-hartzen ditu.

Hurbilpen horren erabileratik eratorritako emaitzak ondoko koadroan aurkezten dira:

Mantenimenduko pobretasunak suposatzen duen koiunturazko pobretasun-mota da, aurreko koadroaren arabera, Euskadiko problema funtsezkoena. Pobretasun metatuzko problemaren portzentaia altuegirik ez ematean, krisiaren soluzio positiboak konpon dezake kostu sozial handiegirik gabe problemaren parte on bat. Depresio honen luzapen batek, ordea, buka dezake

epe ertainera erasandako sutondoen desmetaketako prozesu batean eta orduan benetan modu dramatiko batean narriatuko lirateke bizi-kondizioak, estudio honetan kontutan hartzen diren bi pobretasun-motak bata besteari gainkatzeko joerarekin. Testuinguru honetan, azpimarratzekoa da bi pobretasun-moten konbinazioak bizi-kondizio orokorren peitutasunaren areagotzean duen eragin negatiboa. Horrela, mantenimendu eta metaketako pobretasunezko sutondoen % 38,5 pobretasunaren dimentsio bat edo

besteko miserian aurkitzen diren bitartean, portzentaia hori murriztu egiten da nabarmenki gainerako kasuetan —% 8,5 metaketako pobreenan eta % 10,8 mantenimenduko pobreenan—. Esan daiteke, azken finean, gizartearen bidegurutze batean aurkitzen gara, egoera hobetzeko posibilitatearekin, baina baita biziki okerragotzekoarekin ere.

Datu orokorrak aztertu ondoren, pobretasun-tasen

gizarte eta lurralde desberdinetako eraginaren konparaziozko koadro batzuk eskaintzen ditugu jarraian. Eta egiazta dezakegu berorietan:

1. Pobretasunak familiburu desenplegatuengan edo aldi baterako okupatuengan eta orobat familiburu ez-aktiboengan duen inpaktu diferentziala. (Desenplegatuak dira, hala ere, peitutasun-mailarik altuenera iristen diren taldea.)

2. Familiburu inmigrante edo 40 urtetik gorakoen peitutasun diferentziala.

3. Bizkaiko egoera oro har negatiboa —eta Bilboko hiriri dagokiona partikularzki—, halaber Arabako Lurralde Historikoko zenbait zonatakoa ere.

4. Euskal hiriburuetako hirigune historikoen narraia-dura diferentzial bortitza, Donostiako hirigunearen salbuespen bakarrarekin.

2.2. Pobretasun ezkutua

Pobretasun ezkutuaren azterketa, 18 urtetatik 30 etarako gazte independiza-

3. Kadroa.-POBRETASUN-TASAK, FAMILIBURU-TIPOLOGIEN ETA POBRETASUN-EGOERA DESBERDINEN ARABERA

	POBRETASUN-TASAK			
	Bi motak	Metaketakoa	Mantenimendukoa	Pobretasuna guztira
GUZTIRA	9,1	6,9	22,5	38,5
GIZONEZKO okupatu ezkonduak	4,9	5,8	16,6	27,3
+40 urteko inmigranteak	9,6	5,8	24,2	39,5
+40 urteko autoktonoak	2,6	5,8	15,2	23,6
—40 urteko inmigranteak	6,3	6,8	16,1	29,1
—40 urteko autoktonoak	1,3	4,9	8,9	15,1
GIZONEZKO jubilatutako ezkonduak	7,2	6,7	27,1	41,0
Autoktonoak	7,0	7,8	21,5	36,2
Inmigranteak	7,6	4,6	38,6	50,8
GIZONEZKO desenplegatu ezkonduak	25,6	7,2	40,7	73,5
+40 urteko inmigranteak	32,1	5,9	46,2	84,3
+40 urteko autoktonoak	21,5	5,1	28,5	55,1
—40 urteko inmigranteak	18,9	9,0	54,5	82,4
—40 urteko autoktonoak	26,1	10,0	40,2	76,3
EMAKUMEZKO etxekoandre alargun edo apartatuak	20,0	7,7	31,7	59,4
+65 urteko autoktonoak	15,8	6,8	33,3	55,9
+65 urteko inmigranteak	30,5	1,9	40,3	72,7
—65 urteko inmigranteak	26,6	16,9	25,9	69,3
—65 urteko autoktonoak	13,4	8,1	24,8	46,4
GIZONEZKO erretiratu ezkonduak	16,9	10,4	38,3	65,5
Inmigranteak	23,2	12,3	48,4	83,9
Autoktonoak	9,4	8,1	26,3	43,8
EMAKUMEZKO jubilatutako ezkongabeak	18,6	16,0	21,6	56,1
Autoktonoak	14,4	16,2	21,7	52,2
Inmigranteak	32,7	15,2	21,2	69,1
BESTELAKO kasuak	10,5	8,0	22,5	40,9
Inoizkakoak	14,8	5,7	36,6	57,1

4. Koadroa.-POBRETASUN-TASAK, LURRALDE HISTORIKOEN ETA POBRETASUN-MOTEN ARABERA

	POBRETASUN-MOTA			
	Guztira	Biak	Metaketakoak	Mantenimenduak
ARABA	33,7	6,15,2	5,1	22,5
GIPUZKOA	32,9	12,0	7,0	20,7
BIZKAIA	42,7		7,2	23,5
GUZTIRA	38,5	9,1	6,9	22,5

5. Koadroa.-POBRETASUN-TASAK, ESKUALDEEN ETA POBRETASUN-MOTEN ARABERA

	POBRETASUN-TASAK			
	Guztira	Biak	Metaketakoak	Mantenimenduak
GUZTIRA	38,5	9,1	6,9	22,5
GASTEIZ 1	73,5	35,7	19,4	18,4
GASTEIZ 2	15,6	4,2	3,1	8,3
GASTEIZ 3	15,2	3,0	3,0	9,1
GASTEIZ 4	27,0	1,0	1,0	25,0
GASTEIZ 5	45,5	6,1	8,1	31,3
LAUTADA	41,2	7,2	6,2	27,8
ERRIOXA	25,8	10,3	5,2	10,3
HARANAK	56,5	17,4	15,2	23,9
MENDIALDEA	42,9	5,5	9,9	27,5
KANTAURIALDEA	32,3	7,1	4,0	21,2
GORBEIA	24,5	5,3	6,4	12,8
DONOSTIA 1	28,3	4,0	13,1	11,1
DONOSTIA 2	25,3	2,0	3,0	20,2
DONOSTIA 3	18,2	2,0	3,0	13,1
DONOSTIA 4	36,4	5,1	8,1	23,2
DONOSTIA 5	28,3	5,1	5,1	18,2
DONOSTIALDEA 1	43,4	8,1	10,1	25,3
DONOSTIALDEA 2	37,0	5,0	7,0	25,0
DEBA GARAIA	31,3	4,0	8,1	19,2
DEBA BEHEREA	40,4	8,1	10,1	22,2
UROLA	31,3	4,0	5,1	22,2
GOIERRI	23,2	5,1	5,1	13,1
TOLOSA	35,4	8,1	7,1	20,2
BILBO 1	10,3	—	1,0	9,3
BILBO 2	28,3	6,1	1,0	21,2
BILBO 3	23,2	3,0	6,1	14,1
BILBO 4	52,0	21,0	17,0	14,0
BILBO 5	62,0	17,0	3,0	42,0
BILBO 6	69,7	30,3	23,2	16,2
EZKERRALDEA	40,0	9,0	3,0	28,0
ESKUINALDEA	38,4	13,5	7,7	17,1
BARACALDO	34,7	7,9	5,0	21,8
GERNIKA	38,4	10,1	16,2	12,1
ENKARTAZIOAK	56,0	16,0	17,0	23,0
MARKINA	44,4	9,1	7,1	28,3
DURANGALDEA	26,5	5,1	4,1	17,3
PLENTZIA	39,4	7,1	8,1	24,2
ARRATIA	39,8	11,2	7,1	21,4

6. Koadroa.—POBRETASUNAREN ERAGINA BIZTANLERIA GAZTEAN

18 urtetatik 30etarako unitate potentzialki independenteen kasuan

a) *Datu erlatiboak*

	Kontutan hartutako gazte guztien %
AGERIKO POBRETASUNA →	% 14,6
BENETAKO POBRETASUNA	% 50,1
EZKUTUKO POBRETASUNA →	% 35,5


b) *Datu kuantitatiboak*

	Kontutan hartutako gazte guztiak
AGERIKO POBRETASUNA →	28.900
BENETAKO POBRETASUNA	99.200
EZKUTUKO POBRETASUNA →	70.300


Benetako pobretasunen % 70,9 ezkutuko motakoak dira 30 urtetatik beherakoetan.

tuei edo potentzialki independenteei erasan liezaiekeen mantenimenduko pobretasuneko errealitateei bakarrik aplikatu zaie. Jarraian aurkezten ditugu berorren emaitzak eta bertan ikus daiteke bere garrantzia: gutxi gorabehera 100.000 euskal gazte —erreferentziako kolektiboaren %50,1- pobretasunaren arazoak erasanda aurkitzen dira, eta hauetako % 70,9 zentzu ezkutu batean. Biztanleria gazteak bere pobretasun-problemak ezkutatzeko erabiltzen dituen mekanismoak, baliabide erabilgarriak hobertzeko aintzinako hiru mekanismo malthustarrekih erlazionatzen dira funtsean:

1. Ezkongabetasunaren luzapena.
2. Gurasoen sutondotik independizatzearen atzerapena, oraindik zenbait gazte-talde ezkontutan nabari den bezala.
3. Jaiotza-kontrola.



LUIS SANZO



1. ALDERDI TEKNIKOAK

Ikuspegi teknikitik begiratuta, esan behar da, inkesta 1986ko otsail eta martxo artean egin zela, 3.739 familibururi edo hauen ezkontideei, potentzialki independente baina erantzukizun familiarrik gabeko 18 eta 30 urte arteko 304 gazteri eta, azkenik, aurreko horien ezaugarri bereko baina erantzukizun familiarrekiko 65 gazteri. Kasu guztietan izandako errore-mailak berdinak eta estamentu zientifikoek eta profesional egokiek ohiki zuzenak bezala onartutakoak baino nabarmenki txikiagoak izan ziren lagin mailan. Zehazki, Euskal Komunitate Autonomorako lagin-erroreak honako maila hauetan aurkitzen dira:

a) Sutondoan biztanleria orokorra: $\% \pm 1,73$.

b) Kargura familiarrik gabeko unitate dependenteak: $\% \pm 5$.

(Inkesta egindako sutondoetan dauden unitateen aldean.)

c) Kargura familiarekiko unitate dependenteak: $\% \pm 0$.

(Inkesta egindako sutondoetan dauden unitateen aldean.)

Seinalatutako lagin-erroreen konfidantza-maila $\% 95,5$ ekoa da eta aztertutako fenomenoaren eragin suposatua biztanleriaren $\% 50$ -ekoa.

2. POBRETASUN-ATALASEAK

1. Mantenimenduko pobretasun-atalaseak, familiburuaren adinaren arabera (pezetatan)

ADINA: -34 urte

Tamaina	Miseri lerroa	Pobretasun-lerroa	Ez-pobretasuneko 1. lerroa
1	35.582	63.487	91.392
2	40.368	71.612	102.856
3	44.098	76.838	109.578
4	47.359	80.776	114.193
5	50.350	83.969	117.588
6	53.162	86.672	120.182
7	55.846	89.024	122.202

ADINA: 35-44 urte

Tamaina	Miseri lerroa	Pobretasun-lerroa	Ez-pobretasuneko 1. lerroa
1	39.026	58.919	78.812
2	45.902	75.298	104.694
3	51.175	86.916	122.657
4	55.671	96.231	136.791
5	59.693	104.138	148.583
5	63.389	111.079	158.769
7	66.844	117.307	167.770
8	70.114	122.983	175.852
9	73.235	128.218	183.201
10	76.234	133.089	189.944

ADINA: 45-54 urte

Tamaina	Miseri lerroa	Pobretasun-lerroa	Ez-pobretasuneko 1. lerroa
1	23.126	40.875	58.624
2	34.081	60.869	87.657
3	44.844	80.384	115.924
4	54.030	95.958	137.886
5	62.639	110.088	157.537
R	70.827	123.164	175.501
7	78.688	135.424	192.160
8	86.285	147.026	207.767
9	93.665	158.082	222.499
10	100.859	168.675	236.491
11	107.893	178.868	249.843
12	114.787	188.710	262.633
13	121.556	198.241	274.926

ADINA: 55-74 urte

Tamaina	Miseri lerroa	Pobretasun-lerroa	Ez-pobretasuneko 1. lerroa
1	29.941	41.417	52.893
2	34.267	60.920	87.573
3	42.468	76.347	110.226
4	50.071	89.608	129.145
5	57.285	101.460	145.635
6	64.220	112.299	160.378
7	70.940	122.361	173.782
8	77.489	131.804	186.119
9	83.897	140.736	197.575
10	90.187	149.238	208.289
11	96.374	157.370	218.366
12	102.473	165.180	227.887
13	108.493	172.707	236.921

ADINA: 75 eta gehiago urte

Tamaina	Miseri lerroa	Pobretasun-lerroa	Ez-pobretasuneko 1. lerroa
1	19.957	33.305	46.653
2	30.489	51.136	71.783
3	39.678	65.713	91.748
4	48.082	78.512	108.942
5	56.012	90.133	124.254
6	63.583	100.897	138.211
7	70.872	110.988	151.104
8	77.942	120.556	163.170

OHARRA: Honela definitzen da ez-pobretasuneko 1. lerroa bezala: miseri lerroaren eta pobretasun-lerroaren eta pobretasun erlatiboaren atalaseak bezala definitutako maila ekonomikoen artean dagoen distantzia ekonomikoaren batura bezala.

Mantenimenduko pobretasun-atalaseen definizioan Leyden-en eskolako metodologiaren bertsio zuzendu bat aplikatu da. Hurbilpen-bide honen konplexutasuna kontutan izanik, eta artikuluko honen jomuga ez delako horren aurkezpena egitea, Eusko Jaurlaritzaren "La pobreza en la Comunidad Autonoma Vasca (Avance)" lana ikustea gomendatuko genuke berori aztertzeko.

2. Metaketako pobretasun-atalaseak

Komunitate Autonomoan mantenimenduan pobre ez diren sutondoan arteko ondasun-eta kapital-edukitzaren batezbestekoa, hau da, erreferentzi puntu bezala hartu izan den taidea, 215,1 puntuko baliora iristen da. Eta batezbesteko balioaren % 50 eta %75 aplikatuz, deprebazio/ez-deprebazioko lau gizarte-maila definitzen dira:

1. Metaketan oso pobreak diren sutondoak: 107,55 puntutik beherako puntuazioa.
2. Metaketan pobreak diren sutondoak: 107,6 eta 161,33 puntu arteko puntuazioa.
3. Metaketan pobreak ez diren 1 .eko sutondoak: 161,34 eta 215,0 puntu arteko puntuazioa.
4. Metaketan pobreak ez diren 2.eko sutondoak: 215,1 puntu edo gehiagoko puntuazioa.

Kalkulatzeko orduan, sutondo bakoitzarentzako eskala-puntuazioaren lorpena honako item hauetatik abiatuz egiten da:

	Edukitzza-Balioa eskalan
ETXEBIZITZARI BURUZKO ALDAGAIK	200,00
— Ur korrontea edukitzea	27,52
— Nahikoa azalera erabilgarria	19,22
— Bainua edo dutxa edukitzea	26,66
— Barneko insonorizazio ona	13,19
— Auzokoen bistatik gordea	19,78
— Ikusmira atseginak etxebizitzatik	18,64
— Hezetasun-problemarik gabea	20,06
— O.H.O.ko ikastetxea dutenak	13,04
— Anbulategi edo kontsultategia dutenak	11,32
— Zinea dutenak	7,03
— Joias egin, paseatu, etab.etarako lekuekin	11,61
— Hiribus-geltokiarekin	11,93
BESTELAKO ONDASUNEI BURUZKO ALDAGAIK	100,00
— Argazki-kamera	0,37
-250.000 pta. banku-kontuetan	12,29
-Koloretako TB	5,93
— 10 urte baino gutxiagoko diskogailua	1,58
— Sukalde elektriko labeduna	5,19
— Hozkailu izoztailea	2,78
— Baxeragailua	0,65
— 10 urte baino gutxiagoko sukaldeko altzariak	5,29
— Ikuzgailu automatikoa	5,10
— Josteko makina	2,69
— Telefonoa	3,61
— 1975 baino geroago egindako autoa	40,80
— Garajea	10,01
— Berokuntza finkoko instalazioa	1,39
— 100 liburu baino gehiago	1,34
— 50 disko baino gehiago	0,98

3. INKESTAN ERABILITAKO

	ERRIOXA ARABARRA		DEBA GARAIA
	Baños de Ebro		Antzuola
	Cripan		Aretxabaleta
	Elciego	DONOSTIA 1	Bergara
	Elvillar	Erdialdea Alde	Elgeta
GASTEIZ 1 Hirigune	Labastida	Zaharra	Eskoriatza
Zaharra	Laguardia		Leintz Gatzaga
	Lanciego		Mondragon
	Lapuebla de Labarca	DONOSTIA 2	Oñati
GASTEIZ 2	Leza	Amara Zaharra	
Zabaldura-erdialdea	Moreda de Alava	Antiguo-hirigunea	DEBA BEHEREA
Santa Barbara Senda	Navaridas	Egia	Deba
	Oyon	Gros Zaharra	Eibar
GASTEIZ 3	Samaniego		Elgoibar
Hiribidea	Villabuena de Alava	DONOSTIA 3	Mutriku
Periferiako zabaldura	Yecora	Amara Berria	Placencia
Gazalbide		Gros Berria	
San Martin-Ajuria	ARABAKO HARANAK		UROLA
Txagorritxu	Armiñon	DONOSTIA 4	Aizamazabal
	Berantevilla	Altza	Aya
GASTEIZ 4	Cuartango Lantaron	Bidebieta	Azkoitia
Adurza-Zumakera	Ribera Alta Ribera	Herrera	Azpeitia
Aranbizkarra El Pilar	Baja Salinas de	Intxaurrondo	Beizama
Gorbeia-Domingo	Añana Valdegovia	Larratxo	Zestoa
Beltran	Zambrana	Trintxerpe	Getaria
Judizmendi			Orio
Los Herran	ARABAKO	DONOSTIA 5	Regil
Santa Luzia	MENDIALDEA	Añorga	Zarautz
	Bernedo	Astigarraga	Zumaia
GASTEIZ 5	Campezo	Aiete	GOIERRI
Abetxuko	Lagran	Igeldo	Arama
Arana	Maestu	Loiola	Ataun
Gamarra	Peñacerrada	Lorea	Beasain
Sansomendi	Valle de Arana	Miraconcha	Zerain
Zaramaga		Seminarioa	Ezkio-Itsaso
	KANTAURI ARABARRA	Ulia	Gabiria
ARABAKO LAUTADA	Amurrio		Gainza
Alegria-Dulantzi	Arceniegoa	DONOSTIALDEA 1	Idiazabal
Arrazua	Ayala	Andoain	Itsasondo
Asparrena	Llodio	Hernani	Lazkao
Barrundia	Okondo	Urnieta	Legazpi
Elburgo		Usurbil	Mutiloa
Iruña de Oca	GORBEIA INGURUAK		Olaberria
Iruraiz-Gauna	Aramaio	DONOSTIALDEA 2	Ordizia
Salvatierra	Cigoitia	Hondarribia	Ormaiztegi
San Millan	Legutiano	Irun	Segura
Gasteiz-Herriak	Urcabustaiz	Lezo	Urretxu
Zalduondo	Zuya	Oiartzun	Zaldivia
		Pasaia	Zegama
		Renteria	Zumarraga

ISKUALDEAK

	BILBO 3		ESKUINALDEA	
	Deusto La Casilla		Berango	
	Ibarrekolanda		Erandio	
	Matico		Getxo	
			Larrabetzu	
	BILBO 4		Leioa	
	Bilbo Zaharra		Lezama	
	Hirigune Zaharra		Txorierra (Derio, Lujua, Sondika eta Zamudio)	DURANGALDEA
				Abadiño
	BILBO 5		BARACALDO	Amorebieta-Echano
	Arangoiti		Baracaldo	Atxondo
	Basurto			Bedia
	Berriz		GERNIKA	Berriz
	Irala		Bermeo	Durango
	La Peña		Busturia	Elorrio
	Larraskitu		Ea	Emua
	Otxarkoaga		Elanchove	Garai
	Rekalde (erdialdea)		Ereño	Izurza
	San Adriann		Gauteguiz Arteaga	Lemoa
	San Ignacio		Gernika-Lumo	Mallabia
	Txurdinaga		Ibarrangelua	Mañaria
	Uribarri		Mendata	Zaldibar
	Zabalbide		Morga	
	Zorroza		Muxika	PLENTZIA
			Sukarrieta	Arrieta
	BILBO 6		Rigoitia	Bakio
	Altamira		ENKARTAZIOAK	Barrika
	Atxuri		Arcentales	Fruniz
	Olabeaga		Balmaseda	Gamiz-Fika
	Ollerias		Carranza	Gatica
	Peñascal		Galdames	Lauquiniz
	Rekalde-mendia		Gordexola	Lemoniz
	Santutxu		GUeñes	Maruri
	Uretamendi		Lanestosa	Meñaka
	EZKERRALDEA		Sopuerta	Mungia
	Abanto-Zierbena		Trucios	Plentzia
	Arrigorriaga		Zalla	Sopelana
	Basauri		MARKINA	Urduliz
	Etxebarri-D.E.		Amoroto	ARRATIA
	Galdakao		Arbacegui Guerricaiz	Aracaldo
	Muskiz		Aulesti	Arantzazu
	Ortuella		Echevarria	Areatza
	Portugaleta		Guizaburuaga	Arrankudiaga
	Trapagaran		Ispaster	Castillo Elejabeitia
	Santurtzi		Lekeitio	Ceanuri
	Sestao		Markina-Xemein	Dima
	Zaratamo		Mendexa	Igorre
			Ondarroa	Miravalles
				Otxandio
				Orduña
				Orozco
				Ubidea
				Zeberio
TOLOSA				
Abaltzisketa				
Aduna				
Albiztur				
Alegia				
Alkiza				
Altzo				
Amezketza				
Anoeta				
Asteasu				
Belauntza				
Berastegi				
Berrobi				
Bidegoyan				
Elduayan				
Hernialde				
Ibarra				
Iruerrieta				
Irura				
Larraul				
Leaburu-Gaztelu				
Legorreta				
Lizartza				
Oreja				
Tolosa				
Villabona				
Zizurkil				
BILBO 1				
Erdialdea (Indautxu, Gran Via)				
BILBO 2 Erdialdeko periferia				

LEHEN MAILAKO ATENTZIOKO ZERBITZUETAN INTEGRATUTAKO LAN SOZIALAREN OPERATIBIZAZIOA

Gizarte-Ongizatearen kontzepzio modernoa eratzen duten Arlo desberdinetako lehen mailako Atentzio-Zerbitzuen gero eta ezarpen handiagoak, behin ere baino nabariago egiten du globalizazio eta jeneralizazioko printzipioak gizartelan bateratuaren bitartez garatu beharra, iharduketa-marko bezala hiritarren komunitatea hartuz. Gizarte-baliabide guztiak bateratzeko planteamenduaren operatibizazioa gero eta modu nabariagoan hautematen da baldin eta zerbitzuen prestazioan eraginkortasun handiago bat lortu nahi bada.

1. ASUMITUTAKO PRINTZIOPIO BAT: LEHEN MAILAKO ATENZIOKO ZER- BITZUEN INTEGRAZIOA

Euskal Herriko Komunitate Autonomoko Gizarte-Zerbitzuen Legeak, hezkuntza, eta b. etako gizarte-zerbitzuen sare zabalago baten barnean begiesten du zerbitzu horien kokalekua, eta zazpi dira Lege horrek markatzen dituen printzipio gidariak: 1. -Botere publikoen erantzukizuna; 2.—Elkartasuna; 3.—Hiritarren partaidetza; 4.—Integrazioa; 5.—Deszentralizazioa; 6.—Planifikazioa; 7.—Prebentzioa.

Gizarte-Zerbitzuen Legeak Gizarte-Ongizatean intziditzen duten zerbitzu guztiak bikoizketari itzuri egiteko moduan bateratu beharra aldarrikatzean (14. art.), nahitana hiez insistitu beharra dago eskuharmen sozialeko beste Arloekiko topaguneak bilatzen, Osasun Publikoaren eta Hezkuntzaren kasuan izan litekeen bezala, adibidez, besteren artean. Eta berdin legeria desberdinek zerbitzu horien gestioaz enkargatutako erakundeak bilatzen ere.

Erregimen Lokaleko Oinarri-Legeak honako konpetentzia hauek egozten dizkio udalari, besteren artean:

g) Osasunaren lehen mailako atentzioko zerbitzuen gestioan parte hartzea.

i) Biztanleriaren ongizatera zuzenduriko gizarte-zerbitzuen prestazioa, eta haurren, gazteen eta hirugarren adinakoengana bereziki, eta baita bizitzeko baliabide minimoen hornidura ere; babes sozialeko eta bergizarteratzeko zerbitzuak.

m) Kultur eta kirol-iharduerak eta —istalazioak: denbora libreko okupazioa; turismoa.

n) Irakaskuntzaren programazioan parte hartu eta hezkuntzako Administrazioarekin batean ihardun ikastetxe publikoen sorkuntzan, eraikuntzan eta mantenimenduan; berorien gestio-organoetan esku hartu eta obligaziozko eskolaketa betetzen den ala ez zaintzen parte hartu.

Euskal Komunitate Autonomora mugatuz, 1983ko maiatzaren 19ko Osakidetza-

ren sorkuntzako Legeak adierazten du nola edo zein zerbitzutan ihardungo duen aurretzean: a) Osasun-zentru lokaletan; b) Azpieskualdeko zentruetan; c) Eskualdeko zentruetan; kd) Areako zentruetan.

E.K.A.ko Osasun-mapak, bere aldetik, arestian aipatu dugun Gizarte-Zerbitzuen Legean jadanik ezagututako printzipio batzuk jasotzen ditu: Osasun-Autonomia, Zerbitzuen Integrazioa, Asistentziaren Orokortasuna; Deszentralizazioa; Elkartasuna; Planifikazioa; Demokratizazioa. Eta printzipio horien funtzioan Osasun-Zentruak ez dira bakarrik osasun-sarean integratutako osasun-estruturaz batzuk, baizik eta, gainera, bata bestearekin erlazionatuak daude arloko beste gizarte-zerbitzu sail batekin: hezkuntza, kultura, kirol, ongintza, etab.ekin.

Hezkuntzako Arloario dagokionez, Euskal Herrirako Hezkuntza Bereziko Planak aipamen ugari egiten ditu Komunitateak haur akastun eta baliourrituen atentziorako dituen

baliabideak aprobetxatzeari buruz. Eta integratzioko prozesuaz hitz egiten dut, lehen printzipio nagusi bezala, eta sektorizazioaz, gero, horren baitako printzipio bezala.

2. PERTSONAREN BATASUNA. ERIZPIDE-BATASUNA

Kontutan hartzen badugu nola alde batek komunitate bat eta pertsona bat, bere baliourritasun eta marjinazioko arazoekin, dauzkagula, eta bestetik izugarritzko zerbitzu posible edo iharduketa-pila bat bata bestearekin loturarik gabe, benetan txundituta eta zer egin ez dakien atentzio-subjektu (pertsona bere multzoan bere burua eta bere errealitatea ulertzeko zailtasundun) batekin aurkituko gara, asistentzi eredu ulertu ezinik, galdatzen zaion informazioa errepikatu egiten delako, edota zerbitzu desberdinetan behin eta berriz eskatzen zaizkion baldintza eta dokumentu berengatik.



2.1. Planteamendu integratzaile baterako zailtasunak

E.K.A.ren gaur egungo koiunturan, hauteman dezakegu nola arauak behar bezala garatu gabe dauden udal-kompetentzien eta betebeharren zehaztasun handiago batekin, alde batetik, Gizarte-Zerbitzuen arloan, eta orobat zerbitzu horiek berak finantzatzeko udalak izan dezakeen obligazioan eta Udalen udalez kanpoko Gizarte-Zerbitzuak planifikatzeko izan dezaketen inplikazioan. Eskuharmeneko printzipio nagusienak emanak baldin badaude ere, Gizarte-Zerbitzuen prestazioko erantzulekidetasunak talka egiten du udal-autonomi faltarekin, batez ere baliabiderik gabe aurkitzen delako bere eskumen-eremuan bertan ekintza koherente bat garatzeko. Era berean nabari da baita ere Lurralde Historikoen eta oro har E.K.A.ren planifikaziorako gidalerroen lorpen ordenatu baten falta herri mailako ekintza integratzaile bat dagokien organismoekin praktikan bideratzeko moduan (bai udal mailan edo amankomunatuan herri txikien kasuan, eta bai deszentralizatuan, dagokien organoen bidez, hirigune handietan).

Beste aldetik, gaur egun gehiago hitz egin behar da Oinarrizko Gizarte-Zerbitzuez "horizonte utopiko" bat bezala, errealitate gauzatu bat bezala baino. Lurraldearen estaldura-falta oso bat dago balditza minimoak bakarrik kontutan hartuta ere. (Kontu egin oinarrizko Gizarte-Zerbitzu bezala Gizarte-Langile bat hartzen dela). Eta gauza bera gertatzen da Zerbitzu Espezializatuekin eta premia handiko atentzio-neurriekin eta krisi-egoerekin.

Baldin eta Gizarte-Zerbitzuek beren zentzua eta funtzionamendua komunitate-bizitzaren markoan eta deszentralizazioaren perspektiban hartzen badute, ahalik eta hurbilen egon behar dute problema sortzen den inguruetik. Eta erabakiak arazoak sortzen diren lekutik ahalik eta hurbilen hartu behar baldin badira, deszentralizazioak erakunde sozialen nahitanahiezko baldintza izan behar du; herri mailan egin daitekeena ezin egin daiteke eremu zabalago batetik. Gizarte-Zerbitzuak herriko bizitzako sistema globalen integratu behar baldin badira, beste zerbitzuekiko koordinazioak operatiboa izan behar du eta ez soilik "enuntziatiboa" edo teorikoa. Gizarteko arazoak pertsona izaki bakar eta bateratu eta zatikatu bat bezala

hartuz konpondu nahi badira, eta orobat gizonezko eta gauzazko baliabideak eta ekonomikoak orientazio eta errendimendu eraginkorrago batekin erabili zerbitzuan, geratzen den posibilitate erreal bakarra koordinazioaren perspektibatik geratzen da.

Beste aldetik, Gizarte-Zerbitzuak herri mailan antolatzeak ez du esan nahi gizarte-ongizateko zerbitzu-sare bat jarri behar dela bakarrik, baizik eta baita komunitate-bizitzaren eraikuntza osoa ere.

Azken batean, autua da, zerbitzu desberdinen arteko koordinazio-zailtasunek beharrezko desberdinen estalduran sortutako akatsei konponbidea ematea, hauek erabil-tzaileen eskurago egon daitezen. Zerbitzu bat baino gehiago programa bat bakarrean koordinatzeak ez bakarrik errazten ditu aurrekontu-zuzkidura, ikerketa eta planifikazioa, baizik eta errazagoa izango da egiten ere, eta areagotu legingo du eraginkortasuna, baterarazi egiten dituelako, ahal duen neurrian, GIZARTEAREN ALDETIKO ESKARIA, horretan INTERESATUA DAGOEN BIZITANLERIA eta "ERAKUNDEEN ETA GIZARTEAREN ERANTZUNA".

Gizarte-Zerbitzuak atenditutako biztanle-zerbitzuen arabera (alkoholiko, urritu, zahar, etab.en arabera) gehiegi sailkatzeak ekar dezake ondorio negatibo bezala sektore bat berean, familia edo komunitate bat berak, zerbitzu desberdinetako asistentzia jasotzea, horien artean beharko lukeen koherentzia eta koordinaziorik gabe eta beraz emaitza alferreko eta hutsalak lortuz.

Zenbat eta handiagoa den estali beharreko geografi eremua, areago izan ohi da burokrazia eta txikiagoa bai hiritarren eta bai inplikaturako teknikarien partaidetza gestioan. Eta zenbat eta programa autonomo gehiago eta komunitatean sortuta ko. problematikatik deslotuak garatzen dituzten Gizarte-Ongizateko politika baten estaldurako prozesuan esku hartzen duten Administrazio desberdinen departamentu diferentek, hainbat eta nekosoagoa izango da departamentu arteko koordinazioa.

2.2. Planteamendu integratzaile baten aukerak

Planteamendu teorikoen eta eguneroko praktikaren arteko distantzia ikaragarriak.

gure arreta populazioari lehen mailako atentzio-zerbitzuaren hobekuntzarako bidea erraztuko duen atentzio global eta baterakor bat garatzeko aukerei buruzko planteamendu amankomunei eta gogoetai jartzera behar izaten gaitu.

Dirudenez mundu guztiak onartzen du komunitate baten lehen mailako atentzioko inizatibak garatzeko geografi Arlo egokia 20.000 biztanle ingurukoa dela. Ezaugarri horiekiko geografi eremu batean errazagoa da botere publikoen erantzukizun-pirntziopioak, hiritarren partaidetza, deszentralizazioa, etab.eko printzipioak bideratzea, eta horrek bere aldetik zerbitzuak integratzeko benetako ahalbidetaren tesia bermatzen du.

3. ERREALITATEAREN LEHEN AZTERKETA TEORIKO BATERAKO HURBILPENA

Lehen mailako eskuharmen sozialaren operatibizazio hobe bat lortzeko amoreagatik planteamendu bat egiteko orduan aurkezten zaigun lehen arazoa, aurretiaz enuntziatutako euskarri teorikoa nola gauzatu bilatzea da, eta horretantxe saiatuko gara 1. koadro honetan.

atentzio-subjektuen garapen indibidualaren mailan duen eraginaren funtzioan beste Arloekin bat etortzen diren harremanetan ere.

Beste aldetik, komunitate lokal baten eremuan eman ohi diren prestazioen bilbapen oso horretara hurbiltzen gara: Udal-Zerbitzuak, alde batetik, nahiz eskusiboak nahiz amankomunatuak, udalaren neurriaren funtzioan, edo deszentralizatuak, egitura deszentratuen bidez. Era berean kontutan hartzen da komunitatean sortzen den elkarteugaritasuna, komunitate horretan ematen diren era desberdinetako beharrei erantzutearren: denbora libre, kultura, kontsumo-kooperatibak, auzotarren elkarteak, boluntariaren zerbitzuak. Era berean, eskaintza integratuaren barnean edo koordinatu beharreko erakunde posibleak bezala, beren instaladura udalaren lurralde-eremuaz gaindikoa duten baina hala ere beren zerbitzuak udalerrian, auzoan edo barrutian eskaintzen dituzten haiek aurkitzen dira.

Oinarrizko Gizarte-Zerbitzuetan integratutako gizarte-ekintza batek eskari desberdinei erantzun ahal izateko Laguntza-Sistema bat galdatzen du, 2. koadroan seinatzen


Koadroa.-LEHEN MAILAKO ATENTZIOKO ZERBITZUEN IKUSPEGI OROKORRA

ZONAK GAINOIKO ENTITATEAK	ENTITATE LOKALAK	OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUAK	GIZARTE ARLOA	OSASUN ARLOA	HEZKUNTZ ARLOA	BESTE ARLOAK
Afektatuen eJkaneak. Zehiturri espezialeatu publikoak. Zerbitzu espezializatu pribaiuak. ehen mailako aientzio-zonan Inksluak dauden lurraldez kanpako esialdurako entitateak.	Udal-zerbitzu amankomunatuak edo deskoncentratuak, bere kasuan. Hiritar Gntitateak. Eiolunlarien elkarteak. Zerbitzu zibila, eiab.	HAURTZARDA-FAMILIA Familia sustatu 613 laguntzeko programak. Haurren eta gazteen pngizatearen sustapena. Baliourriuen integrazioa. Prebentzipa eia bergizarteraiea.	*	*	*	Etebizita Kultura Kirola Denbora libre
		HELDU-AROA BaliourriLien integrazioa. Delinkuentziaren prebentzipa. Bergizarteratzea. Sexu, arraza eta bestelako arrazpiepgatiko diskriminazioa ezabaiea. Marjinazio-kausen prebencioa.			*	Etebizita Lana Justizia Kultura eta Denbora Libre
		HIRUGARREN ADINA Hirugarren adinari laguntza Kausen prebentzioa Marjinazipa	*	*		Etebizita Kultura Denbora, iibrea. etab.

Koadro horretan, Lehen Mailako Atentzio-Zerbitzu desberdinen artean sortu beharreko harremanen ikuspegi orokor bat ematen da, modu laburtuan, ;nola Gizarte-Zerbitzuen Arloetan, hala Osasun-Arloan eta Hezkuntz Arloan, eta orobat komunitate mailan eta

den bezala: Planifikazio egoki bat eta Zerbitzu Espezializatuzko sare bat eta dauden baliabideen azterketan egunera jartzeko informazio-bilbapen osoa, eta orobat Gainbegiratzeko Zerbitzuak eta Formazio Iraunkorrekoak ere.

2. Koadroa.-OINARRIZKO GIZARTE-ZERBITZUETAN EKINTZA SOZIAL INTEGRATU BAT ERAMATEKO LAGUNTZA-SISTEMAK



4. OPERATIBIZAZIOA OINARRIZKO ERIZPIDEEN FUNTZIOAN

Baldin eta Gizarte-Ongizateko eredu bat, maila konkretuan, pertsonari bereziki komunitate-prozesu batean integratutako atentziotik pasatzen delako konstatazioa, edo hobeto esateko kontzientzi hartze bat, eman-go bada, nahitanahiez argitu beharrak daude aipatu ekintza integratu horren oinarriak.

4.1. Oinarrizko erizpideak

Ikus ditzagun, bada, oinarrizko erizpide batzuk:

—Gizarte-Zerbitzuak botere publikoen erantzukizun bat dira, eta horren ondorioz zerbitzu pribatuak planifikatu egin behar izaten dira, Gizarte-Zerbitzuen politika orokorraren barnean, batez ere horietako gehienek fondo publikoak gestionatzen dituztenean. Erantzukizun horiek planteamendu orokorretik eta biztanleria guztiarentzako izaera orokorrearekin garatu behar dira.

—Prebentzioko programek eta ekintzek barmanian koordinatuak egon behar dute asistentziakoekin, zeintzuk denboran jarraikoak ez badira ere, harreman estua bait dute, horrela hurbileko asistentzi ekintzak zer prebentzio-mota geratu behar den definitzen digularik.

—Laneko metodoak zientifikoa izan behar du bere multzoan, eta horrek funtsezko urratsak ematera darame bere garapenean: Errealitatetik abiatzea: Azterketa eta ikerke-

ta; Planifikazioa; Exekutapena; Ebaluazioa. Urrats horiek Oinarrizko Gizarte-Zerbitzu batetik bakardadean garatzeko zailtasunak, jadanik aipatuak eta komunitatean esku hartzen duten gainerako elementuekin eta Gizarte-Lan Integratutako Laguntza-Sistemekin lotzea galdatzen du. Gestioa Gainbegiratzeko, Informatzeko eta Laguntzeko eginkizunek, gizarte-lanean bertan era praktikoa eta operatibo batean integratuak egon behar dute.

—Komunitatean garatzea. Problema Komunitatean azaltzen dira, sortu ez baina pairatu egiten dira, eta horrek, proposamenak komunitatetik bertatik ekartzera eta bere baitan duen bere arazo propioak konpontzeko potentzialtasuna erginkor egin dezaketen inizatibak garatzera eramaten du.

—Marjinazioaren (eta ez marjinatuaren) kontrako ekintza integratu batek, diferentziatu egiten du integratzeko xedearekin, eta behar handienak dituen lehenesten, eta horixe ezartzen da ekintza integratuan lehentasunezko erizpide bezala.

—Pertsonak ekintzaren erdian daude. Zerbitzu integratu batek zerbitzuak gizatiarrago egitera bultzatzen du. Desgizatiartzearen aurkako politika batek kasuen katalogazioa eta beroriek burokraziako espediente soil batzuetara murriztea gainditu egiten du, guztiaren ginetik eta bereziki pertsonaren duintasuna ipintzeko.

—Lehen Mailako Antentzioko Zerbitzuzko Integratu batek, unitate-legislatibo, organiko eta funtzional bat du marko bezala, Gizarte-

3. Kuadroa.-LEHEN MAILAKO ATENTZIO-ZERBITZUEN FUNTZIONAMENDU INTEGRATU ZUZEN BATERAKO GARANTIZATU BEHAR DIREN FUNTZIOAK

Eremua	Mailak	Funtzioak							
		1	2	3	4	5	6	7	8
Herria Auzoa Barrutia Zona	Oinarrizko gizarte-zerbitzuak	*	*		*	*	*	*	*
Eskualdea Lurralde Historikoa	Gizarte-zerbitzu espezializatuak	*		*	*	*			*
L.H. E.K.A.	Baliabideen planifikazioa eta koordinazioa		*		*	*			*

Zerbitzuen Sistemako erantzukizunen erreferenziaren barnean, hiritarrei hurbilen zaien instantziaren, Udalaren, barnean.

4.2. Gizarte-Zerbitzuen antolamendu-eredua eta berorietatik garantizatu behar diren funtzioak

Gizarte-Zerbitzuen Arloan proposatzen den antolamendu-eredua, Planifikazio zentralizatu eta Gestio deszentralizatuzkoa da. Bestelako alternatibak (autogestiozkoa, etab.) ere posible diren arren, erantzun horrek bere mugak aurkitzen ditu baliabide urrien razionalizazioan eta informazioen "joan-etorri" komenigarrian, hasi oinarritik eta erabaki-maila gorenetaraino, eta orobat udalak bezalako oinarrizko instantziekiko lankidetzan.

Hiritarren, teknikarien eta politikarien gestio eta partaidetzako eginkizunak, maila guztietan eman behar dira, horretarako instrumentu egokien bidez (Gizarte-Ongizateko Kontseiluen bidez printzipioz, baina ahaztu gabe udal bakoitzeko edo komunitate bakoitzeko beren inizatiba-mailak).

Zein ere den gestiokera, Lehen Mailako Atentzioko Zerbitzuen eragin-eremuan, gizarte-zerbitzuen prestazioari konsubstantzial zaizkion funtzio desberdinen komplimendua garantizatu beharra dago, hala nola: 1) Asistentzian; 2) Informazioan; 3) Errehabilitazioan; 4) lkerketan; 5) Planifikazioan; 6) Prebentzioan; 7) Bergizarteratzean; 8) Ebaluazioan, 3. koadroan jasotzen den bezala.

Nolanahi ere, zenbat eta biziagoa izan komunitate bat, zenbat eta harreman gehia-


go egon oinarrizko atentzio-zerbitzu desberdinen artean, zenbat eta gehiago funtzionatu programa integratuen arabera, orduan eta gehiago erraztu beharko dira plan integratuen burutzapenerako baliabideak.

Lurralde mailan oso zentralizatutako gestio bat, bakarrik justifika daiteke, inizatiba integratua edo kontzientzia kolektiboa eskasa eta aktibitate gutxikoa denean, eta soilik azken hori garatzen ez denean. Ez baldin bada horrela gertatzen, azkenean burokrazia nagusituko da eta zerbitzuak gero eta urruntzenago joango dira erabiltzaile posibleengandik. Kanpotik probokatutako iniziatiben funtzioan ihardungo da eta egitate administratibo bat gehiago bihurtuko dira. Jakina, oinarrizko gestio —eta erabaki-mailez ari gara hitz egiten, beren maila justuan baloratuz Lurralde—Administrazioaren edo Autonomoaren beste mailei dagozkien Planifikazio-mailak, zerbitzu espezializatuen bikoizketarik sortu ez dadin.

5. LEHEN MAILAKO ATENTZIO-ZERBITZUETAN INTEGRATUTAKO LAN SOZIALAREN OPERATIBIZAZIOA

Behin finkatuz gero Zerbitzu Integratu baten garapenerako oinarri sendoak, sortuzagun orain hori bideratzeko instrumentuak.

Zerbitzuen mailarik onena lortuko da, Zerbitzu erabilgarriek bai indibiduo behartuei eta bai taldeei eta komunitate marjinetuei erantzuten dietenean (4. Grafikoa). Hori




horrela ez delako kontzientziak, ordea, baliabide guztiak bateratzeko premta larria sortzen du, berorien urritasunaren eta ekintzaren efikaziaren funtzioah koordinatuz. Baina, jeneralean, ez da hori ere gertatzen. Gainera, kontrakoa gertatzen da askotan (5. Grafikoa). Zerbitzu desberdinen arteko loturafaltarengatik, eraginkortasunik gabeko bihurtzen dira asko eta askotan, eskuharmen indibidualizatu batera mugatzen dira, ekintza bikoizteko arriskuarekin, jokatzeko eta amaizake baliabideen xahuketa jasanezinezko batean.

Hurbil gaitzen eredu integratura 6. Grafikoa aztertzeke xedearekin. Komunitatean, honako Lehen Mailako Atentzio-Zerbitzuok ematen dira (edo eman daitezke) batera: Alde batetik, Oinarrizko Gizarte-Zerbitzuak, gehien-gehienetan Gizarte-Langile batez eta askotan Etxerako Asistentziaz hornitutako ekipo batekin. Ekipo hauek berek garatzen dituzte beren programa propioak. Beste aldetik, Osasuneko Lehen Aterrtzioko zerbitzuak agertzen ari dira pixkana-pixkana (O.U.Lan) eta hauek ere beren prebentzio eta asistentziako programa propioak garatzen dituzte. Hirugarren talde batek zonalde; normalean zabalago batean iharduten du, hala nola Hezkuntzako Ekipo Muftiprofesionaltan, zeintzuk, harrizkoa bada ere, ez bait

dute Gizarte-Langilerik, baina bai Pedagogoa, Psikologoa eta Irakasle Terapeuta bat. Badaude baita ere Ikastetxeak beren problema-pontezialarekin, Jubilatuen Klubak, etab. Eta beste aldetik, lurraldeaz kanpoko eremuko erakunde pribatu zerbitzuak daude, zona batean kokatuak, eta zonako zerbitzu espezializatuak, langile soziokulturak, etab.


Gerta liteke zerbitzu hauek ez elkar eza gutzea eta programa parateloak garatzea, elkarren konkurrentzian ez bada ere. Alabaina, 6. Grafikoa aztertuz, batera datozen programak daudela ikusten dugu biztanleriaren baitan, epe laburrerako helburuetan baiera datozenak batzuk eta epe luzerako helburuetan batera datozenak franko. Ikus dezagun 7. Grafikoko KoadFoan zer posibilitate dauden bateratzeko. . .

Elkargune desberdin posibleetako bat aztertzen baldin badugu, (I), ezar genezake ondorengo konbergentzi koadroa eta ezar genezake baita gizarte-eskuharmen bateratuko programa integratu bat ere, Zerbitzu Espezializatu bat zonan egotea aprobetxatuz (esate baterako): . . .



7. Koadroa^ELKARTZEN DIREN PROGRAMAK

Oinarrizko gizarte--zerbitzuak	Osasuneko lehen atentzio-zerbitzuak	Hezkuntzako ekipo multiprofesionalak	Bestelako zerbitzuak
Programa: Haurren eta gazteen ongizatearen suztapeña	Eskolumearen eta adolezentearen programa	Hezkuntza Bereziko plana	
Etterako lagurtza Familian hartzea Tutoretza eta Adopzioa Abegi-Zentruak Sutondo funtzionalak Miniegoitza Egunezko zentruak Orientazio profesionala eta Okupazioa, etab.	Elikadurako higieena Haurren aldizkako kontrola Eskola-aztefketak eta arrisurfaktoreak Aho eta hortzetako ardura Adimen-higieena, etab.	Diagnostikoa Laguntza Psikopedagogikoeskolan Etab;	Denbora librea Drdezko sufondoak Egunezko zentruak Prebentziozko hiritar planak, Etab



Koadroan isladatzen den elkargune anizkoitz hori osa daiteke komunitatean diharduten beste baliabideekin ere. Ikus ditzagun harreman batzuk dagokien elkargunean aztertuz (6) (5).

Haurren munduan esku hartzeko Plan batek konta dezake, bere garapenean, Haurtzaroaren Babespenarako Elkartearen esku-harmenekin zonaldeko arazo jakin batzuk, hala nola, zenbait haurren segimendua; baz-

karia ematea eguerdian eskola-jantokirik ez dagoenean; haurrak hartzea larrialdietan "segimendu-zentruetako lana; udalekuak; libreko klubak" famili lana, etab., konpontzearen.

Haurtzaroaren programan nire ustez nahikoa argi ikusten den hau, beste horrenbeste gertatzen da Hirugarren Adina, Drogamenpetasunaren prebentzioa eta Toxikomano ohien bergizarteratzea, Moldagabezia, etab. i buruz hitz egiterakoan.

Hirugarren Adinaren programa integratu batek konta dezake Lehen Atentzioko Zerbitzuetatik hasi eta beti ere zaharraren mesedetan bere eraginkortasuna potentziazteko koordinatu beharreko baliabide posibleen barietatearekin. Jadanik hedatuak dauden Etxerako Laguntzakoek gainera, Lehen Mailako Osasun-Atentzioan Zaharren Programarekin behar bezala lotuta, konta dezake Hirugarren Adinakoen Egoitzekin eta Jubilatuen Klubekin bazkariak kanpokoei zerbitzeko, arropak garbitzeko leku bezala, eta okupazio-terapiarako ere bat, behar izanez gero; eta Egoitza horiek koordinatu daitezke eguneko zentru bezala, Jubilatuen Klub, Etxerako bazkari-zerbitzu, Hirugarren Adinakoen Larrialdiko Egoitza, etab. bezala ere funtzionatu ahal izateko. Ahaztu gabe, noski, laguntzako eginkizunak betetzeko edo hainbat arazo puntual konpontzeko boluntariez.

Drogamenpetasun prebentzioko programen kasua balitz, berriz, hiritarren erakunde loka! guztien (Auzo-Eikarte, Guraso-Eikarte, Denbora Libreko Klub, Gaztetxe, Hezitegi, Kirol-Klub, Kultur Erakunde, Baluntarien-Zerbitzu, etab. en) eskuharmenak, Hezkuntza Sailaren menpeko CA.R.en Orientatzaile den Adimen-Osasuneko Zerbitzuekin batera, prebentzio-ekintza efikaz bat garatzeko euskarritza egingo luke.

Garrantzi handia- du dena bilbapen koherente batean koordinatu behar diren kontzientzia izateak, zerbitzu desberdinen menpekotasun instituzionalak eta beren programa espezifikoaren autonomia errespetatuz noski.

Eman daitezkeen arazoetako bat da, Gizarte-Zerbitzuen programa bat martxan jartzeko erantzukizuna norena den definitzea. Printzipioz esan daiteke komunitatean eragina duten profesional guztiena dela eta.

horien faltan, ingurunean iharduten duten gizarte-taldeena. Hala ere, koordinazioaren ardura hori era berezi batean bere gain hartzen duena izan daiteke (izan behar luke) Udala, berak du eta protagonismoa bere kompetentzi eremuan eskuartean darabilgun gai honetan. Eta jakina, horretarako agenterik aproposena Gizarte-Langilea izango litzateke.

Hauxe izango litzateke jarraitu beharreko prozesua:

1. Gizarteko errealitatea eta zerbitzu bakoitzak gizarte horretan duen eragin-maila ezagutzea.

2. Ekin beharreko problematika komunen erantzun-ahalbideak neurtzea maila gizatiar, tekniko eta ekonomikoan.

3. Bere lan-programak ezagutzera ematea.

4. Eginkizun beretsua duten beste erakunde publiko eta pribatuekin akordio batera iristea, programa non eta zein biztanleriri aplikatu behar zaion erabakitzeke.

5. Akordio horiek errespetatu daitezzen zaintzea.

Honatz lanerako eskemaren proposamen konkretu bat:

8. Koadroa.-KOMUNITATEKO LEHEN ATENTZIOKO PROGRAMA INTEGRATU BATEN DISEINUA-REN ADIBIDEA.

PROGRAMA: INGURUNeko ESKASIEKONPENTSAZIOA

PROIEKTU Zk. IZENA;
DESTINATARIAK: Zenbakia eta ezaugarriak;
PROIEKTUAREN KOKAPENA:

FUNTSAKETA:

--	--

HELBURUAK:

--	--

EKINTZA ETA URRATSAK	DENBORA	BEHARREZKO BALIAB.	ARDURADUNAK	KOSTUAK

9. Koadroa.-PROGRAMA INTEGRATUEN KOORDINAZIO-ERREGISTROAREN EREDUA

Cata: Ordua:	PROGRAMA INTEGRATUEN KOORDINAZIO-ERREGISTROAREN EREDUA Programa: Erakunde inplikatuak: Pertsona inplikatuak:	Batzartuak:
-----------------	---	-------------

EKINTZA	HELBURUAK	ARDURADUNA	EBALUAZIOA	AKORDIOAK

6. PLANTEAMENDU HONETAN AURRE- RA EGITEKO

Bide bat baino gehiagotatik jo behar da gisa honetan planteamenduak finkatzeko. Erantzukizun politikoen mailan, batasun legistatibo, organiko eta funtzional bat garatu, kompetentzia, erantzukizun eta baliabideen maila desberdinak artikulatuz, globalizazio eta jeneralizazioko printzipioetan aurrera mesedetuko bait lituzkete, zerbitzu pribatuak ere berne, ekintza planifikatuetan diru publikoarekin finantzatuak izanez gero.

Teknikarien mailan gero eta desburokratizazio handiagoa lortu behar da Gainbegirapen, Informazio, Orientazio eta Formazio iraunkorreko programak garatuz. Zera azken finean: ikertu, estudiatu, koordinatu, planifikatu eta ebalutatu.

Herritarren mailan elkartasuneko iharduerak garatu, partaidetzakoak eta, nola ez, errebindikaziozkoak.

Guzti hori Gizarte-Ongizateko zerbitzuak Komunitatean prestatzeko planteamendu operatibo integratu baten mesedetarako izango litzateke.

RAFAEL MENDIA

KOIMTSULTATUTAKO BIBLIOGRAFIA

ALONSO TORRES, J. A. *Análisis de la situación social española y perspectivas de la misma*, "Documentación Social" aldizkariaren 53. alean.

ARENAS, Josep. *La atención primaria en los Servicios Sociales. ¿Meta o realidad?*, "Revista de Servicios Sociales y Política Social" aldizkariaren 1. alean.

BARCELONAKO UDALETXEA *Area de Servicios Sociales. Memoria 1981*

DEL VALLE GUTIERREZ, A. *Reflexiones en torno a la búsqueda de un nuevo modelo de servicios sociales y su implantación a nivel local y comunitario*, "Documentación Social" aldizkariaren 64. alean.

DEL VALLE GUTIERREZ, A. *El modelo de Servicios Sociales en el Estado de las Autonomías*. Edit. Siglo XXI. Madrid 1986.


DOMENECH FERRER, Rosa *Servicios Sociales para todos*, "Documentación Social" aldizkariaren 44. alean.

LAS HERAS, Patrocinio y CORTAJARENA, Elvira *Introducción al Bienestar Social*. Edit. Siglo XXI. Madrid, 1979.

PONCE DE LEON GARCIA, Crissell *Manual de Organización y desarrollo para comunidades marginadas de las ciudades*. Edit. Trillas. México 1985.

BATZUK: *Estructura y Organización de los Servicios Sociales*. Diputación Provincial de Valencia. Valencia, 1983.

PROFESIO BERRIAK GIZARTE ETA OSASUN ARLOAN



Ezpairik gabe produkzio edo zerbitzuen sektoreetako beharrei gero eta gehiago doitzen zaizkien profesio berriak sortzeko joera ematen ari da gaur egun. Batzuetan korporazio profesionalak kritikoki erreakzionatzen dute beren iharduketa-eremuak erdimaiiako eta tradiziozko "kanon"ek galdatzen dituzten baino edukin teoriko gutxiagoko ikasketa-programekin perfilatutako profesioen aidentik "inbasio"-arrisku bat bezala ikusten duteiako.

Zerbitzuan-en ale honetan, Sagrario Sanz del Rio-k, SiIS.ean egindako ikerketa batean oinarrituz, errepaso bat ematen die beste herrialdeetan zerbitzu-eskaintza biztanleriaren beharretara hobeto doitzen saiatzen diren gizarte, osasun eta hezkuntzaren arloko hainbat profesiori.

Manolo Vigo-k, bere aldetik, rol profesionalen aurretiazko bizimotdaketarik eta politika sozialen definizio argirik gabe, zerbitzuen baliatzaileari arros zaizkion beharreatatik inongo kritikarik gabe profesio berriak ezartzetik datorren arriskuaz oharrazten du. Ez dago dudarik garrantzi handiko gaia dela hau, eta behin eta berriro eztabaidatuko dela etorkizunean ere.

PROFESIO BERRIEN GARAPENA OSASUN GIZARTE ETA HEZKUNTZAREN SEKTOREETAN

Sektore hauek gaur egun-
go munduaren garapenean
duten eboluzioa kontutan
hartuz, nahikoa arrazoi bada-
goela ematen du atenditu
beharra dagoen gero eta
populazio zabalagoaren
behar anitzei erantzuna emate-
teko xedearekin azken ha-
markadatotan bere espa-
rruan sortu diren profesio
desberdinei buruzko estudio
bat egiteko. Populazio hor-
rrek, bere estamentu des-
berdinetan, haurrak eta nera-
beak, hirugarren adinekoak,
gazte marjinauak, langabe-
zian daudenak, etab. besar-
katzen ditu. Eta ez da lehen
eregizarte-talde guzti horiek
ez zeudeiako, baina hala ere
egia da horiek planteatuta-
ko beharriak ez zirela
aztertu era egituratu eta
koherente batean, hau da,
zerbitzuen planifikazio bate-
rantz zuzenduta, azken hogei
urteotan egin izan den
bezala.

Zerbitzuen planifikazio
honetatik abiatzean hasi dira
herrialde desberdinetako
Administrazioak zerbitzu
horiek eskaintzeko lana egin-
go duten pertsonak forma-
tu eta gaitu beharraz ardu-
ratzen, eta pixkana-pixkana
profesio berriak sortu dira
lanpostu berriak betetzeko
gizarte, osasun eta hezkun-
tzako arloan.

Herrialde industrializatu-
tako aurrerapen tekniko-
garapena izan da, paradoxa

ematen badu ere, zerbitzu
hauen beharra zuzenean edo
zeharka mugierazi duen zioa.

Horrela, esate baterako,
medikuntzaren arloan egin-
dako ikerketak, giza bizia
hirugarren adin bat lortze-
raino luzatzea posible egin
duten tratamendu-forma
berrietarako bidea eman du,
eta gaur egun sektore hori
da biztanleriako ugariena,
bere beharriak propioekin,
bizirik irauteaz gain noski:
aurrerapen teknikoek indus-
trian, eta mekanizazioak en-
presetan, laneku gehie-
gi sortu dute eta, ondorioz,
langabeziarako, zoritxarrez
egunean baino egunean
ugariagoa den beste gizarte-
estamentu espezifikiko berri
baterako, langabetuenerako,
bidea eman dute, eta nola-
bait ere, langabeziak, pro-
zesu sozioekonomiko hone-
tan kriminalitateari mesede
egiten dio eta horrela beste
populazio-sektore bat —deli-
tugile eta giltzapetuena—
sortzen da, behar soziale-
kin noski hauek ere; eta sor-
tzen da berebat drogamen-
petasunaren arazo eta adi-
men urriko biztanleriarena,
droga —eta alkohol— men-
petasunaren aurrikusezinez-
ko ondorio batzuen fruitu
bezala askotan; eta gizarte-
talde berri hauek sortzean
horiek planteatzen dituzten
arazoetan atendituko dieten
pertsonak formatu beharra
sortzen da. Hortixe jalkitzen
da, hain zuzen, herrialde

desberdinek nolabait ere
aipatu biztanle-sektore hori-
en gizarte-ongizateaz ardu-
ratuko diren profesionalak
beren zerbitzuetara inkorpo-
ratzeko duten interesa.

Zentzu honetan genioen,
egokia ezezik guztiz desira-
garria iruditzen zitzaigula
profesio berri horiek beren
garapen industrial eta so-
zioekonomikoan zaharragoak
izateagatik zerbitzu horien
ezarpenean aurrea hartu
diguten herrialdeetan nola
garatu diren estudio bat
egitea.


Estudio horrek honako
funtsezko etapa hauek bete
beharko lituzke: informazioa
bildu dagoen dokumentazio-
tik; gaiari buruz dagoen
errealitatea konstatatu, estu-
diatutako zentru eta zerbi-
tzueta bisitak eginez, eta
profesio berriek garatutako
lanaren eta beroriei sorrera
eman zien helburuetara zen-
bateraino egokitu diren eba-
luazio-zundaketa bat egin.

Guk, Dokumentazio-Zentru
bezala, etapa horietako lehe-
na betetzeko xedarekin, lor-
tu ahal izan dugu informa-
zio baliagarriak, batez ere
Erresuma Batu eta Frantzia-
ko egoerari buruzkoa eta
gure ingurunerako ideia eta
iradokizun baliotsurik eman
diezagukeena. Eusko Jaur-
laritzari aurkeztua izan zaio
jadanik berori txosten zaba-
lago baten gai bezala.

Horrela, esate baterako Erresum Batuan, profesio berriak osasun, gizarte eta hezkuntzako arloetan garatzerakoan, interesgarri iruditzen zaigu azpimarratzea nola bereizi dituzten ekintza-eremu desberdinak batez ere erizaintza eta gizarte-langiletzako profesionalei dago-kienean. Bereizketa horrek, benetan garrantzizkoak iruditzen zaizkigun ongi definitutako programa eta formazio-planetarako lekua egiten du.

Aipagarria iruditzen zaigu, berebat, 16-18 urteko gazteei nola indibiduoaren problematika sozialarekin eta problematika horri erantzun ematen dioten zerbitzu desberdinekin kontaktuan jartzeko eskaintzen zaien aukera. Aukera hori, Gizarte-Atentzioko Aurre-Ziurtagiria edo PCSC (Preliminary Certificate in Social Care) lortzeko formazio-ikasketek garatua dator. Eta formazio hau gizarte-zerbitzuekin familiarizatzeko aukera bezala eskaintzen zaie gazteei beren hezkuntza orokorarekin jarraitzen duten bitartean. Formazioko denboraren laurden bat gizarte-ingurune desberdinetako praktikekin betetzen da. PCSC deiakoak ez du kualifikatzen pertsona gizarte-zerbitzuetan lan egiteko, baina dudarik gabe oso orientazio baliotsua eta kontutan hartu beharreko eredu bat gertatzen da ondo funtsatutako gizarte-laneko profesioetarantz.

Frantzian gizarte-arloan garatutako profesioei dago-kienez, jarraian erakusten den koadroan jasoak aurkitzen dira hauek, kasu bakoitzean dagokion formazioaren ezaugarri bereziak ere barne-hartuz.



Profesio horien azken urteotako eboluzioaren azterketa batek horiei guztiei amankomun zaizkien honako ezaugarriok aipatzera garamatza:

—Berorien eskuharmen-arloa pixkana-pixkana gero eta handiagotzen ari da.

—Horiek egikaritu ahal izateko gero eta ezagutza-maila altuagoa eta etengabeko informazio jarraitua galdatzen zaie horretan daudenei.

—Garatzen diren eremuan arazo konplexuak sortzen dira, eta gero eta konple-

xuago egiten profesio berriak ugarituz doazen neurrian. Eta horrek, alde batetik, gizarte-ekintza terrenoan bertan korrodinatzeko eragozpenak sortzen ditu langile sozial desberdinen artean eta, bestetik, haihbat arazo profesioarteko mugak ezartzeko orduan, beroriek eratzeko edo egituratzeko oinarria talde-lana izan denean.

—Eta, beste aldetik, aitoren eta ezagutza eskasa egiten zaie iangile sozialari eta bere lanari.

—Pertsona asaldatu, moldagaitz edo marjinatuekin, eta

gainera batzuetan beren pro-
blemen konponbidea erabat
ezinezkoa denekin etenga-
be kontaktuan egoteak bera-
rekin dakarren desgaste fisi-
ko eta psikologikoa era
berezi batean nabari eraz-
ten duten profesioak dira.

—Profesio hauen egikaritzan
ematen diren beste zailta-
sunak, baliabide eta bitar-
tekoen falta izan ohi da kasu
batzuetan, eskuartean diren
baliabideen eta metodo apli-
kagarrien arteko koordinazio-
falta bestetan; erakundeen,
pertsonala enplegatzen du-
ten organismoen eta langi-
le sozialaren beraren arteko
koordinazio-falta, etab.

—Badago, populazio-esta-
mentu espezifiko batera
zuzendutako espeziaizazio
edo lan-arlo bat bakarrean
ditxoan ez geratzearren, sek-
tore eta eremu desberdine-
tarantz dibertsifikatu eta sus-
tatzeko joera bat. Langile
hauek kontutan hartzen di-
tuzte beren karreraren sortzen
diren perspektiba berriak eta
birmoldaketa posibleak.

—Iraunkorki prest egotea,
oreka fisikoa eta kalitate
moral handiak galdatzen
dituzten profesioak dira, kon-
trakarrean pertsona bezala
izugarri aberasteko ahalbi-
deak eskainiz.

—Azkenik, ikusten da nola,
profesio-eremu honetan,
funtzio behinena, asistentzia
soiletik hasi eta hezkuntza,
formazioa eta aholkularitza
barne hartzen dituen arlo
zabalagoetara eboluzionatu
duen, indibiduoaren, taldea-
ren eta kolektibitatearen
onuran, beti ere, beroriei
autonomoak izaten lagun-
duz.

SAGRARIO SANZ DEL RIO

FORMAZIO Onartzeko baldintzak, formazioaren

PROFESIOA Idiplomaren sarrera-urtea)	2UZENeko ENTREGA IKASKETA OBOKORRAK AMAITU ONDOREN			
	Guftenezko adina	Sarrerako maila	Sarrerako azterketa edo lehiaketa	Ikasketen iraupei-ia
LagunE6 wmediko-psikologikoa 11927)	///	///	///	///
Animatzaile		Animazio sozio-Edukatiborako Gailasun- Diploma (A.S.E.D.), Teknologiako Uniber- tsitate-Diploma (T.U.D.)		3 une
Zerbitzu sozialeko lagumzaile (1932)		Batxilergoa edo mulu baliokidea	Hautespen-azterketa	3 urte
Ekonomia sozial familiarreko kontseilana (1974)		Batxilergoa + Goimatoa Teknikari-Diploma (G.T.D.) ekonomia sozial familiarrean Bdo ifakaskuntza domestiko familiarreko monitoreak	Gaitasun kontrola	3 une 2 + 1)
Administrazioko hezitzaile 11967]	20 urte	Batxilergoa edo titulu baliokidea edo hezi- tzale espezializatuaren Estatu-Diploma (E.D.)	Oposizioak	2 une 1 urte
HezkunEa jagonaren kanpoko zerbitzuen hezitzailea	18 une	Batxilergoa edo titulu baliokidea edo tezi- tzale espezializatuaren Estatu-Diploma (E.D.)	Oposizioak	2 urte 1 1 urte
Gazteen hezitzailea (1959)		Batxilergoa edo titulu baliokidea	Hautespen-azterketa	2 urte
Hezitzaile espezializatua 119671	18 une ez- batxilerrerizatzat	Oiplomarik gabe	Hautespen-azterketa	3 urte
Hezitzaile tekniko espezializa- tua (1967)	///	///	///	
Monitore/hezitzailea		Ikasketen Profesionalen Diploma (I.P.D.). osasunkeia eta gizane-arazoetako karre- ren prestakuntzakoa (aukera soziala). Diplomarik gabe	Hautespen-azterketa	1 une gubiernez 2 urte
Famili langilea 11949)	20 urte az- lerkeia - -uffleko abenduaren 31(1)	1. Zikloko Ikasketen Diploma-Maila (B.E.P.C.)		8 hiiabele + + 1 proba-urte

SOZIALAK

iraupena eta emandako diplomak

IHARDUERA PROFESIONAL BATEN ONDORENGO SARRERA				DIPLOMAREN TITULARRA
Adina	Iharduerako baldintzak	Sarrerako azterketa Bilo lehiaketa	Ikasketen iraupena	
18 urte	Klinika-laguntzailetzako ikasleak praktikeiako laguntzaile mediko-psikologikoak	Hautespren-probak. 1. Zikloko Ikasketen Diplomara-ko (L.Z.J.O.rako) izan ezik, puerikultura eta ama-laguncako urgazleen Gaitasun Profesionalen Ziurtagina (G.P.Z.J. Ikasketen Profesionalen Diploma (I.P.D.I) sanitarioa eia soziala	240h 2 urtetan zehar banatuak	Gaitasun-Ziunagiria
	3 urteko iharduera profesionala edo animazun ez-profesionaleko 3 urteko eranuukizuna		3 urte	Estatu-Diploma [E.D.]
	Gutxienez 3 urteko iharduera profesionala edo familiara	Hautespren-azterketa	3 urte	Estatu-Diploma (E.D.)
	3 urteko ariketa profesioarekin erlazionaturiko iharduerata batean	Goimailako Teknikari-Diplomarako azterketa (G.T.DJ)	1 urte	Diploma
				Gaitasun profesionalen azterketa
28 urte	5 uneko profesio-praktiko bezkuniz arloan	Oposizioak	2 urte	Estatu-Diploma [E.D.]
				Estatu-Diploma [E.D.]
	3 urteko iharduera profesionala moldagaitzentzako zemu edo zerbitzu batean hezitzaile bezala, gazteen hezitzaile-diplomaren edo monitorea/hezitzaile-funtzionario gaitasun-ziurtaginariaren titularentzat izan ezik.	Hautespren-azterketa	4 urte	(D.E.E.S.)
	Baixilefgo Teknikoa edo Oiploma Teknikoa (B.T.) edo maila baliokidea + praktika profesionala oinarritzko ofizioan. Gaitasun Profesionalazko Ziunagiria (G.P.Z.J. Ikasketen Profesionalen Diploma (I.P.D.I) edo "diploma baliokidea + 5 urteko praktika profesionala oinarritzko ofizioan. A.F.P.A.ko praktikak Gaitasun Profesionaleko Ziurtagiria (G.P.Z.) titulua ez dmententzat.	Hautespren-probak	3 urte	Hezitzaile Tekniko Espezializatu Funtzionario Gaitasun-Ziurtagiria [E.T.E.F.GZ]
20 urte	Enplegu posibleen ikastaraa	Hautespren-azterketa	2 urte	Monitore-Hezitzaile Funtzionario Gaitasun-Ziurtagiria
				Ziurtagiria

PROFESIO BERRIAK GIZARTE-ZERBITZUEN EREMUAN: ZALANTZA ETA NAHASMENDUA

Azken urteotan profesio berriak sortzen ari dira Gizarte-Ongizatearen eremuan, batez ere Osasun, Hezkuntza eta Gizarte-Zerbitzuen arloan.

Gogoeta-moduko hau Gizarte-Zerbitzuen eremura mugatuko da batipat, bertako profesionalen egoera, arlo honetan nagusi den nahasmendua deskribatzen eta berori ordenatu eta biderapen akademiko eta profesional bat emateko esku har dezaketen elementuak proposatuz.

Gauza sozialaren inguruan sortu dira, animatzaile soziokulturalak, kale-hezitzaileak, marjinazioan espezializatutako hezitzaileak, famili hezitzaileak, denbora libreko zuzendariak eta monotoreak, urgazle sanitario-sozialak, osasun eta gizarte-zerbitzuetako teknikari urgazleak, urgazle geriatriko-sozialak, etab.

Gizarte-politikan eta gizarte-ongizatean gu baino aurreratuagoak dauden herrialdeetatik inportatutako profesioak dira gehien-gehienetan. Herrialde horietan profesional hauek beren iharduketako eremuei —normalean populazio-sektore oso konkretuei— dagozkien programa sozialak elaboratu eta burutzeaz arduratzen dira eta indibiduoaren eta

komunitatearen beharrak aztertu eta interpretatzeko bidea ematen dieten teknika oso espezifikoetan trebatuak daude, prozesu osoan erasandako hiritarren inplikaziotik eta dauden baliabideen erabilera razional batetik abiatuz. Metodologiaren eta eskuharmenaren eskema, beraz, gizarte-bizitzako maila desberdinetan eman daitezkeen gabezi egoerei aurrea hartu eta beroriek ebazteko pentsatua dago. Komunitate-garapenean eta marjinazio-arrisku handiko egoera indibidualen atentzian espezializatutako teknikariak dira hauek.

Konplikazioak eta kontraesanak sortzen dira, irudi profesional horiek formalki inportatzen ditugunean eta beste funtsezko hainbat elementutaz, hala nola gizarte-politikaz, ahaztu egiten garenean, zeinak espazioa —zerbitzua edo programa— sortu ezezik profesio berri horien irudia eta funtzioak diseinatzen bait ditu, gainera. Gizarte-politika da, dudarik gabe, zerbitzu sozialen profesional berri hauei estalpea, dagokien lekua eta zentzua ematen dizkiena, eta, alderantziz, bizirik irauteko mailak gainditzen ez dituen edo horretan geratzen den urgazletzako gizarte-politika batek leku eta funtzio gutxi dauzka eskaintzeko profesional hauei. Izan ere, profe-

sional berri hauek, gure ingurunean, nahitaez hain nobedosoak ez izaki laguntzan eta komunitatearen garapen-lanean berak baino eraginkorragoak baina beren prestakuntza eta titulazioarengatik zerbait garestiagoak diren beste teknikarien ordezkapeneko lanak betetzen dituzte ia beti. Asistente Sozialetaz eta Langile Sozialetaz ari naiz noski. Bistan da kontratatzaileek aurrezpen ekomikoari gehiago begiratzen diotela Zerbitzua-aren kalitateari baino... eta jarrera horrek, gezurra badi-rudi ere, urrundu egiten gaitu teknikari hauen kontratazioarekin sustatu nahi genukeen gauza batetik: zerbitzua-aren kalitatetik eta bizikalitatetik alegia.

Ez dugu ahaztu behar ezta, gizarte-zerbitzuen profesional berri hauek, beren iharduketan eraginkortasun eta espezifikotasunean oinarritu, formazio egoki baten beharra, dutela, Europako Estatu-estatuko ikasketa-plan teoriko-praktikoekin homologagarria litzatekeena alegia. XX.mendean ezin habilitatu edo gaitu daiteke, edo hobeto esateko ez litzateke gaitu behar profesional bat korrespondentzia-azko kurso batekin edo hogeitamar ordutako ikastaro azeleratu batekin. Aitortu beharra daukagu badaudela ekimen partikular oso duinak, Denbora

Libreko Eskolak, esate baterako; nahiz eta esan beharra dagoen, bestalde, beharrezko subentzio, baliabide material egoki, beren ikasketen sailkapen normalizazioa eta abar luze bat gabe ko pertsona eta talde oso jakin batzuen adorea eta erabateko dedikazioari eskera aurrera ateratako esperientziak direla. Gabezia gehiegia, hitz batean esateko.

Administrazioa ere hasia da horri buruzko iniziatibak hartzen, baina esperientzia isolatu bezala, Komunitate Autonomoan dagoen irakasmundutik aparte eta, beraz, oso zalantzan jartzeko moduko planteamendu eta emaitzekin. Gizarte-ongizatean eta gizarte-zerbitzuetan amaitzen dute gaur egun ez bakarrik Lanbide-Heziketa birmoldatuak baizik eta bait porrot egindako unibertsitate-espezialitateko ikasketak planek edota lan-merkatuan eskabide urria dutenek ere. Eta orduantxe bihurtzen da, hain zuzen, bakoitzaren egitekoa etengabe birdefinitu beharra kenduezinezko obsesio.

Unibertsitatean ikasketak plan berriak estrukturatzen ari diren une hau izan daiteke, hain prezeski, aukera aproposa razionaltasun pixka bat gehiago ezartzeko ezagutzaren arlo guzti honetan... Baina beldur naiz Unibertsitatean bertan ere ez ote den nagusitu gabe gertuko arrazoia, "santoi" jakin batzuen interesak gailenduko ote diren eta entzuten ari garen bezain proposamen hain bitxiak aterako ote diren aurrera. Batzuek, katedra prestigiotsuen izen-abiizenekin bat letzokeen espezializazioak sortu nahi lituzkete, kontutan hartu gabe

horien beharrik ere bada goen ala ez, espazio hori une honetan behar bezala eta duintasunez betetzen duten Diplomaturak sailhestuz, bata bat bestearen gainean jartzera behartuz, Unibertsitatearen beraren benetako baliabideez duten ezezagutza larria frogatuz eta, hitz batean esateko, baliabide gizatar eta ekonomikoak xahupen onartezinezko bat eraginez.

Gisa horretako desordenaren ondorioak begien bistakoak dira:

—Egoera honek ahaikatu eta aeragotu egiten ditu zerbitzu edo programa berean lan egiten duten profesionalen eta hauen eta organo errektoreen arteko ika-mikak.

—Era berean, gauzen egoera honek nahierarako jokatibideetarako bidea ematen du, non azkenean denek denetik eginez amaitzen duten eta koordinazioa ezinezkoa ez esateko behintzat oso zaila gertatzen den, elkarri lankide gisara begiratu ordez denek jabe go partikular eta erabilera eskusiboko esparru bezala kontsideratzen duten baten konkistan lehiakide bezala jokatuz.

—Zalantzarik gabe, egoera hori isladatzen da Administrazioan ere, non ministraritza bakoitzak, kontseilartza bakoitzak, udal-zerbitzu bakoitzak bere kontura iharduten duen, denek batera populazio-sektore beretan intzidituz, gizarte-politikako eredu desberdinak, metodo desberdinak, erabiliz. Gisa horretako baldintzekin, nahi den gizarte-ekintza dela ere, komunitatearen beharrei

erantzutera zuzendua dagoen arren, subjektibitateari, intuizioari, pragmatismoari edo kointura politikoari emango zaio lehentasuna.

Dena dela, gizarte-zerbitzuetako profesional hauen egitekoak kokatu, diseinatu eta antolatuko dituen koordinazio baten premia bizia ezartzen da, bakoitzaren betebeharrak mugatuz, bakoitzaren zereginen mugak ondo bereiziz, zerbitzu horiek bame-hartuko dituzten programak sortzeaz gainera ordenazio akademiko egituratu, ireki eta aurrerakor baten barnean formazioa bere era potentziatuz. Izan ere, horrela jokatuz gero, kalitateko zerbitzu batzuk eskaini ezezik, nahitenaheiz profesioaren egikaritzaren kalitatean eragiten duen profesioarteko lankidetzaren bide ratzen bait da.

PROFESIOARTEKO KOORDINAZIO BATERANTZ

Aktibismo profesional batetik zorroztasun zientifikoko planteamendu batzuetara pasatzea, espontaneismo pertsonaletik profesioarteko taldeek egindako plan globalerara pasatzea, empiris motik aurretiaz diesinatutako metodologi jarrera batera pasatzea, lehentasun osoa eskatzen duen aldatu-behar bihurtzen da. Gizarte-arazotara ikuspegi honetatik hurbiltzeak, zera galdetzen du hezkuntza mailan: behar bezala koordinatutako ikasketak planen bidetik, gizartearen errealitatea, bere dimentsioniztasuna eta bere operatibizazioa ikerketa sozialeko tekniken bidez aztertzeko gauza izango den jarrera zientifiko bat, raziona-

lizatzaile bat, lehen-lehenik. Eta bigarren leku batean, jarrera zientifiko baterako bidea ematea, errealitatea komunitatearen interes-zentruetatik irteten diren programen bidez aldatu ahal izateko. Eta hirugarrenik, komunitatean dauden baliabide gizatar eta instrumentalak era razional batean erabiltzea.

Partizipazio-dinamikak instrumentu pedagogiko bezala gizarte-ekintzako prozesu osoan.

Laburbilduz, honako faseotan egituratzen da Metodo hau:

—Errealitate sozialaren analisi eta diagnostikoan (behar sozialean).

—Baliabide sozial eta pertsonalen anafisian (erantzunetan).

—Prozesuaren ebaluazioan eta emaitzen teorizazioan.

Komeniko litzateke apartatuhauekako bakoitzean luzatzea, berekin doazen teoria eta teknikak ikusteko, baina hori urrundu egiten da profesio berriei buruzko gogoeta xume honetatik eta profesio horieketa beren iharduketak antolatu eta koordina ditzaketen printzipio batzuk proposatzeko dudan asmotik.

Eskuharmeneko eredu hauek, gauzak daudenean uzten dituzten asistentzi iharduketak ebitatzen dituzte eta komunitatearen garapena, partaidetza eta negatiboa dena positibo bihurtzen eta sustatzen dituzte, ikertutako arazoan ezagutza zientifiko bat ezezik beroriei aurrea hartu eta gainditzea galdatuz.

Beste aldetik, metodologi eskema oinarritzko eta jeneralista honek irakaskuntza mailan eta ondorioz baita profesional berriak gizarte-zerbitzu desberdinetan kokatzeko orduan ere bilatzen duen eta lortu nahi lukeen koordinazio horretarako bidea ematen du, eta hiru arrazoiengatik hori:

—Lehenik, metodo hau unitate mikrosozialen mailan ezezik errealitatearen beraren dimentsio desberdinetan ere aplikatu ahal izateak, eskuharmenerako tresna egoki bihurtzen du gizartean aplikatzen duten espezialista desberdinentzat. Metodoak, marko operatibo bat beraren barnean kokatzen ditu profesional desberdinak eta aztertutako errealitate sozialaren dimentsio desberdinetara moldatzen da. Horrela ez bakarrik ezagupen osagarriak ekartzen dira, baizik eta gainera beren eskuharmenak, eskema honen barnean, azken koordinaziorako bidea ematen duten zentzu, funts eta razionaltasun batez zuzkituak daude.

—Bigarrenik, eskema metodologiko honen barnean beste profesio ez hain teknikoak baina horregatik gizarte-ongizatea lortzeko ez garrantzi gutxiagokoak kokatu beharko genituzke. Denbora libreko monitorea, sutondo-urgazleak, osasun-urgazle sozialak, geriatriako teknikari urgazleak, etab. datozkit orain burura.

Teknikari horiek metodologi prozesuko maila jakin batzuetan aurkitzen dute beren kokapena, beren funtzioekin bete ahal izateko Oinarritzko Metodoaren ezagupena galdatuz, baina batez ere beren eskuharmen-

partzelari aplikatutako teknika espezifikoen ikasketan intzidituz.

—Hirugarrenik, eskema edo proiektu pedagogiko ireki bat beraren baitako kokapen profesional honek, profil profesionalak definitzeko bidea ematen du, gizarte-zerbitzuetako profesionalen arteko ika-mikak gutxiagotuz, eta antzeko profesioen barnean bestelako ezagupen eta sustapen mailatara iristeko bidea ere ematen du, eta baita hezkuntz prozesu honen barnean egindako maila bakoitzean lan-merkatura iristekoa ere.

Ez dago adimen-injineru izan beharrik, kontsekuen-teak eta pertzeptiboak izan baino, ez bakarrik teknikari hauen izenarekin baizik eta baita gizarte-teknikari berriei lagundu behar dien hezkuntza eta politika sozialeko planteamenduekin ere.

Erresuma Batuan, gizarte-zerbitzuetarako bidean irakaskuntza ertainetatik bertatik hasteko posibilitatea dago gero Unibertsitate-Eskola Teknikoetan amaitzeko, lan-merkatura zabaldu-tako maila desberdinetatik edota bestelako ikasketa —eta titulaziu- mailatatik pasaz.

Denbora libreko zuzendariak, animatzaile sozio-kulturalek, kale eta famili hezitzaileek ildo horretako hezkuntza hartzen dute Europako Komunitatean, kualifikazio altuko profesional bezala definituz, Unibertsitate mailako eskema pedagogikoen barnean eta langile sozialaren aldakinak bezala definituz. Horiek guztiek parte hartzen dute oinarritzko prestakuntza batean,

espezializaziora eramaten duten aldagai espezifikoko erantsiz. Eta jakina, aplikazio sozialeko metodoak ongi ezagutzen dituztenak dira horiek guztiak.

METODOAREN BIDEZ KOORDINATZETIK LAN SOZIALEKO ESKOLETARA

Azken muturreraino agortu behar dira dauden baliabideak. Horrela bada, Irakaskuntzako proiektuari dagokionez, badaude Lan Sozialeko Unibertsitate-Eskolak, errealitate hori batzuek ezagutzen ez duten arren, profesional horiei ezagutza teoriko-praktikoak emateko eta, ondorioz, eskuharmen profesionaleko inarrizko metodoaren arabera, metodo jeneralista, malgua, fenomeno sozialari berezko zaizkion konplexutasun-maila desberdinen arabera aldaketa eta mutazio partzialak egiteko bidea ematen duenaren arabera, profilak eta funtzioak antolatzekeko gai direnak.

Gai osagarriak eta ikasketak urte bat gehiagora hedatuz, Eskola hauek eman dezakete formazio jeneriko bat eta aldi berean errealitate sozialaren aspektu desberdinetan zentratu, hala nola, denbora librean, animazio sozio-kulturalen, kale eta famili hezkuntzan, profesional hauen fizarte-ekin-tzako eraginkortasuna garrantizatu.

Horrela bada, Eskola horiek irakasgaien aldetik sendogotuz eta inbertsio minimo batzuekin, prestatu ahal izango liriteke teknikari trebeak gizarte-ongizatearen sail desberdinetan, osotasu-

na —gizarte-politika jakin bat— parteekin — programa espezifikoko eta sektorialekin— koordinatzeko gai liritekeenak alegia.

ADMINISTRAZIOAREN EKIMENAK ETA ERANTZUKIZUNA

Behin zerbitzu sozialen antolamendua Euskal Komunitate Autonomoko Zerbitzu Sozialen Legearen argitalpenetik diseinatu gero, Administrazioak gutxienez bi obligazio behintzat badauzka hartuak zerbitzu sozialekiko. Lehena Komunitate Autonomoaren Estatutuan funtsatzen da, zeinak kompetentzia eskusiboak aitortzen bait dizkio zerbitzuen arlo honetan; eta bigarrena Zerbitzu Sozialen Legean, honek gizarte-zerbitzuetarako pertsona kualifikatuen prestakuntza potentziatu beharra begiesten bait du (2. Titulua, 2. Apartatua, 80. Art.). Autua da, beraz, Komunitate Autonomoak bere gain har dezala dagokion erantzukizuna zerbitzu eta programa berriak sortzeari buruz, eta pertsonal espezializatuaren trabakuntzari buruz.

Bigarren puntu honi dagokionez, Administrazio Publikoak deituko diela espero da alderdi inplikatuari eta profesio bakoitzeko ordezkariari, profesio hauen berregiturapena eta razionalizazioa jadanik Lan Sozialaren edo Gizarte-Ongizatearen arloan ikerketa eta irakaslanetan hogeitau urte baino gehiagoko bizitza duten Lan Sozialeko Eskoletatik gutxiasko trazatuak dauden bideetatik kanalizatu ahal izateko. Horixe izango litzateke profesional berriak beren homonimo europarrekin ho-

mologatzera eramango lukeen bidea.

Desiratzekoa izango litzateke halaber antolamendu akademiko horrekin batera Zerbitzu Sozialen Legea potentziatuko balitz bere arau eta antolamenduzko eskemetatik atera eta bere garapen eta hedapenak gizarte-zerbitzu guztietara eta bakoitzera iritsiz eta, horrela, Komunitate osora zaballik dauden zerbitzu, gogoe-tabide eta komunitatearen partaidetzako topaleku bihurtuz. Arbitratu beharko liriteke, berebat, mekanismo egokiak ere hiritarrek erabakietan parte hartzeko bidea izan dezaten, beharra/asetasuna delako eske-ma funtzionalista hautsi eta beharra/gaindietzea delako beste askoz ere progresista eta gizatarrago horrekin ordeztuz.


Estalduera zabaldu beharra dago gizarte-bizitzaren antolamenduari, animazio sozio-kulturalari, denbora librearen atentzioari dagokienean; kasu konkretuen soluziobidean agortu ordez beti Komunitate osora iritsiko diren gizarte-iharduketak sustatu beharra dago, kasu bakoitza bere konplexutasunaren baita eta konplexutasuna kasu bakoitzaren dimentsioak kontutan hartuz tratatu beharra dago, zentzu honetan egingo den edozein esfortzu Komunitatearen bizi-kalitatearen mesedetarako izango den ziurtasunarekin. Eta esan beharrik ere ez dago printzipio hauetan oinarritutako gizarte-politika batek zerbitzu sozialetako profesional berri hauen presentzia galdatzen duela.

MANUEL VIGO

GIZARTE-ZERBITZUA ETA ENPLEGUA BALIO-URRI PSIKIKOENTZAT

Bost urte inguru dira jadanik (82-05-20) Eusko Jaurlaritzak, Parlamentuan onetsi izan ondoren, Gizarte-Zerbitzuen Legea argitaratu zuela. Orduan, soluzio zaileko ikuspegi-sai! bat planteatzen zen Lege honetan; baina nolabait ere hark ukitzen gintuen guztiak gogobetez apoiatu genuen.

"Zioen Azalpena" delakoan Legeak berak zioenez, egoera "kaotiko" hura zuzentzea zen haren helburuetako bat eta, gainera, Gizarte-Zerbitzuen alorreko area espezifiko batzuk, zuhurtasunez, legetzen saiatzea.



Ihardun-eremu lehentsietako bat, Legeak bere 3-5 Artikuluan dioenez, da, "balio-urrikoak ahalik eta gehien integratzea hezkuntza-lan eta gizarte-munduan edota, hala behar izanez gero, zerbitzu berezien bidez, zein bere gaitasunetan gararaztea". 5. Artikuluan, Gizarte-Zerbitzuak funtsatzeko erabiltzen diren oinarri orokorrak aipatzen dizkigu: 1) Botere Publikoen erantzunbeharra. 2) Solidaritatea. 3) Hiritarren partehartzea. 4) Integrazioa. 5) Deszentralizazioa. 6) Plangintza eta 7) Prebentzioa.

Bost urte joan dira, eta balio-urri psikikoei dagokienez, nire ustea da, egoera, kaotikoa ez dakit baina nahastua behintzat badela oraindik. Aurreratu da gauza batzuetan, baina salto kualitatiborik ez da ematerik izan guztiok behar eta espero genuen neurrian. Aipatu Lege hori baino hilabete lehenago argitaratu zen Balio-Urrikoaren Gizarte-Integraziorako Legea (LISMI) baina hala ere baratuta gaude eta ilusioa galduta ere bai puska bat.

Gaur egun, hainbat aukera dauzka balio-urri psikikoen kolektiboak lan-munduan, eta beraz gizartean, integratzeko orduan (berrikusi beharreko axioma genuke hauxe). Aukera hauek dira: enplegu arrunta, Enplegu-Zentru Berezia, enplegu-okupazioa (?), Okupazio-Zentruetan eta errehabilitazioa Eguneko Iharduera-Zentruan.

Enplegu arrunta. Bide honek, integratzailerena izanik ere, negatiboki eboluzionatu du.

Enplegu arruntera ailegatzen diren balio-urri psikikoen kopurua anekdota hutsezkoa da. Gainera, ikusten denez, lehen enpresa arruntetan lan egin zuten balio-urriak Enplegu-Zentru Berezieta eta are Okupazio-Zentruetan ere ari dira aldatzen.

Bide honetan Administrazio Zentralak, Autonomikoak eta Lurraldetarrak ez dute lanik egin.

Bada laguntza txiki bat balio-urriak kontratatzen dituen enpresarentzat Enplegu-

Institutu Nazionalak emana. Langabezia gero ta handiagoa delako eta beste balio-urri batzuekin (fisiko edo sentimenezkoekin) lortzen den errentagarritasun handiagoa delako, ezinezkoa gertatzen da bide hau balio-urri psikikoentzat.

Hortik ateratzen den galdera zera da: Zer egin daiteke gai honetan Gizarte-Zerbitzuen aldetik? Gizarte-Ongizatearen kontzeptuari buruzko gogoetan sakontzen hasi gabe, gauza nabaria da, enplegu bat eskuratu eta edukitzea dela gaur edozein hiritarrentzat, kontsideraziorik handiena ematen duten gizarte-baloreetako bat.

Nire ustez, Gizarte-Zerbitzuak badute modua, dinamikoki eta solidarioki jokatu, "lanpostua lortzeko zailtasun bereziak dituen" kolektibo honentzat lanpostuak mantentzen edo sortzen laguntzeko. Guztiz ebidentea da hau, ze Mendebaldeko mundualde osoan, Administrazioak urtero bilatu behar izaten ditu formulak, Gizarte-Zerbitzuak direla medio, lanpostu bereziak sortzeko edo lehen-goei eusten laguntzeko.

Zentzu honetan bada egiteko handi bat gure Gizarte-Zerbitzuek egin dezaketena, eta ondoko puntu hauetan labur daitekeena: Detektatu eta zentsatu, enpresa arruntetan enplegaturik dauden balio-urri psikikoak. Aztertu horiek beren lanpostuari eusteko dauzkaten zailtasunak. Aztertu nola antolatu dagoen lan-mundua (enpresa publiko eta pribatuak, sindikatuak, merkatal ganbarak, etab.), eta bideak egin lan-mundu arruntetan balio-urrikoak oro har eta partikularzki, psikikoak sar daitezten. Aztertu, planifikatu eta kuantifikatu enplegu-bide hau indartzeko eskatzen den laguntza. Lan-munduaren sentimena suspertu, balio-urrien eskubideak defendatuz, eta gizarte-ongizatezko maila duin bat lortzeko mekanismo sozialak erabiliz.

Enplegu-Zentru Berezia. Bide hau nahikoa arrakastarekin erabili izan da gure Komunitate Autonomoko zenbait lekutan. Ez da betaro integratzeko balio duen bidea, baina salto kualitatibo handi bat suposatzen du Okupazio-Zentruen edo lehen bateko tailer babestuen aldean, nahiz eta atzerakada bat izan enplegu arruntarekin konparatuz.

Enplegu-Zentru Bereziak segregatu egiten ditu balio-urriak, hauentzako produkziozko lantegi espezifiko bat izatean. Hala

ere benetako lan-harremana izateko ahalbidea ematen dio balio-urriari, nahiz eta harremana berezia izan.

E.K.aren bada aldagai bat oso fruitu positiboak ematen ari dena. Balio-urrien lantaldeak dira, kanpoan zerbitzu jakin batzuentzat lan egiten dutenak edo enpresa arruntetan ere bai. Lan-araudia malgutzera lortzeko balitz, integrazio-bide handia izango litzateke aldagai hau. Zentzu honetan berean, "enklabe"en formula ari da desarrolatzen, Europako herrialderik gehienetan, eta emaitza oso onekin gainera. Gizarte-Zerbitzuen aldetik iruditzen zait sakondu egin behar litzatekeela formula honen azterketan eta gure Komunitate Autonomoan aplikatzeko ahalbideetan.

Hala ere balio-urri psikikoei buruz Enplegu-Zentru Bereziak dituzten irtenbideak elitistak dira eta beraz segregazionistak, ba gaurko baldintza normaletan oso langile gutxiri ematen bait die lanbiderik; jasotzen den laguntza guztia Lan-Ministraritzaren esku eskusibokoa izaten da eta Fondo Sozial Europarraren bidez jasotzen. Honek berriz baldintza-sail bat jartzen du soldataren eta errentagarritasun ekonomikoaren aldetik nekez goiti daitekeena.

Kontutan izanik Enplegu-Zentru Bereziak pribatuak direla gehienak eta diru-zailtasun handiak dauzkatala, gertatzen da, tarteko bide hau, teoriarik onartzeko modukoa delarik ere trabazko korrika-apostu bihurtzen dela eta gutxi direla hortik abiatu eta horri azkeneraino eutsi diezaioketenak.

Hutsa da enplegu-aukera honetan Gizarte-Zerbitzuek ematen duten laguntza. Beraz, elkar aditze-falta bat dago Administrazio Zentralaren eta Autonomikoaren artean, eta horrek okerragotu egiten du gai honetan elkarrengana hurbiltzea bera ere.

Honen ondorioa izan da, Okupazio-Zentruak murriztu beharrean nabariki ugaltu direla, eta ez dago itxurarik egoera hau neurri integratzaileen alde aldatuko denik. Enplegu-Zentru Berezia mugatua dago, Gizarte-Zerbitzuetako organo eskudunen aldetik datorkion babes-faltaz.

Okupazio-Zentrua. Formula hau izan da betidanik erabiliena. Azken urteotan, berriz, murriztu beharrean handitu egin da bizirio



horren erabilera, gure Lurraldeetakoren batean bereziki. Hasieran batean, lanerako ezgaitasun handia zuten balio-urrientzat zen formula hori, asistentzia baten beharra bait zeukaten okerrago ez jartzeko eta, terapia batzuen bidez, eguneroko bizitzan haztura-sail bat lortzeko, aipatu balio-urriek omen daukaten autonomia eskasa sendotuko lieketenak. Komodin-formula bat da gaur egun, bertan edozer sartzeko balio duena, balio-urri psikikoak batez ere; zeintzuk lan-gaitasun handi eta txikiagoa dutelarik ez bait dute aurkitzen behar hainbat baliabide gizatiar eta materialik enplegu bat lortzeko, ezta hau Enplegu-Zentru Berezia izanda ere.

Guzti honek egoera nahasi eta segregatzaile batean jartzen gaitu eta, nire ustez, pertsonaren zenbait funtsezko eskubideren kontrakoan ere bai.

Eskematikoki esanda, egoera honetan lanera joaten dira balio-urri psikikoak. Ahal duten neurrian egiten dute lan, baina ez dute ulertzen zergatik den; ez dira benetan

langile, baina "okupatuak" egoten dira eta sari-eskubidearekin gainera. Benetan ulergaitza da egoera eta, hala ere, horixe da gehien erabiltzen den formula.

Okupazio-Zentruak Gizarte-Zerbitzuek subentzionatzen dituzte, zeintzuek modulu bat ematen bait dute atenditutako balio-urri bakoitzarengatik. Zentruak hornitzen dituen lan-merkatua normalean birkontratatuena izaten da. eta lehia gogorrean egoten dira etxetiko lanarekin eta azpi-ekonomiaren muga-mugan ere bai. Ekipamenduak pobreak izaten dira eta baliabide tekniko eta gizatiarrak eskasak; horrela bizirik irautea izaten da horien helbururik nagusia.

Dena dela, aitortu beharra dago ahalegin handiak egin dituztela Administrazio Lurraldeetarak, mantenimendu kontzeptuko finantzaketa segurtatzen.

Nik neuk, Okupazio-Zentruetan dagoela uste dut Zerbitzu Sozialen eta Gizarte-Ongizateko edozein departamenturen pro-

balekua. Horretarako ikuspegi asko behar dira eztabaidatu eta jadanik ezagutzen diren errealitateak zehatz konstarazi.

Egunezko Iharduera-Zentrua. Bide honek, printzipioz, ez du inongo balio-urri psikiko



ren integrazio laboralik ahaltzen. Beren ezgaitasun nabariagatik, inolako lanik egiteko gauza ez direnentzat bakarrik erreserbatzen da. Formula hau gero eta gehiago erabiltzen da eta Gizarte-Zerbitzuek dago. Horren helburua da, balio-urria ahalik eta autonomia-rik handiena emango dioten ikasketa eta trebetasunez hornitzea; eta ez da deskartatzen hori lehen aipatu bideetako batera alda daitekeenik ere, ikasketa edo birziklapeneko denbora bat igaro ordoren. Beste balio-urri batzuentzat ere erreserbatzen da, alegia, gorago aipatu formuletan lehen integraturik egona izan arren, noizean behin edo iraunkorki desajuste bat jasaten dutezentzat.

Alboko grafikoan ikus daiteke azken lau urteotan Gureak-en izan den eboluzioa, entitate horrek atenditzen bait die Gipuzkoako balio-urri psikiko gehienei.


Ez dut ezagutzen beste Lurraldeetako datu zehatzik, baina badakit ez direla hobeak.

Balio-urri psikikoak integratzeko dauden lau formulak ikusi ondoren, ausartu egingo nintzateke atentzio-eremu hau argitzeko balio-urri bakoitzaren neurri batzuk formulatzera, nire ustez, balio-urriak lanean ahalik eta gehien integratzeko lagungarri izango direlakoan.

Aurretiaz esan beharra daukat, lanaren bidea ez dudala baliozko bakartzat jotzen. Hobe da, nire ustez, integrazio erreala, balio-urri bakoitzak planteatzen edo eskatzen dituen gaitasunen eta premien arabera. Honek, edozein hiritarrentzat balio duela uste dut. Gero eta garbiago ikusten da, zauli-agoa dela langile-rola.

Gero eta garrantzi handiagokoa da, langile bakoitzak egin behar duen lanaren kalitatean eta kantitatean eskatzen den malgutasuna. Lanerako bakarrik ez, bizitzeko eskubidea gero eta utopia gutxiago duen gauza da. Lan ez egiteko eskubidea defendatzen dudana da. Lan ez egiteko eskubidea defendatzen dudana bezala, lan egiteko eskubidea ere defendatzen dut, benetan gizakiak egiten duena lan egitea denean batipat.

Gizarte-Zerbitzuetako Legearen artikulua gorago aipatuekin dudana erabateko adostasunetik abiatuz, neurriren batzuk formulatzen saiatuko naiz, gero eta baratuago



aurkitzen den egoera bati dinamismoa ematea beste asmorik gabe.

Konpromisuari heldu beharra. Aspaldiko lantoki babestu haiek utzi eta, profesionalok erreklamatu dugu, izan dadila publikoa Gizarte-Zerbitzuen ardura, horien-eremu guztietan. Administrazio Autonomikoak Administrazio Zentralarekin batera behar du estudiatu eta planifikatu, etenak eta hutsuneak ebitatuz, ondorio negatiboak izaten bait dituzte horiek hiritar babes beharrekoenetan.

Izan zen Administrazio Lurraldetarren bat, problematika hau bere globalitatean berezako zuena, Gizarte-Zerbitzuen gestioa eta desarroiloa ekimen publikoaren eskutik eramateko asmotan. Orain, uste dut, berriz ere gestio pribatua ari direla, periloski, potentziatzen; baina honek, nola "ez bait duen irabazirik", frenatu egin dezake Gizarte-Zerbitzuen martxa. Nire eritzian, ez da zuhera, Administrazioak, esku pribatua iaioagoa delako ideiar indar ematea. Altruista izatea, beste hiritar batzuen marginazioa disimula ezin duten jende batzuren pribilegioa da. Administrazioak, ez bait da altruista, erantzunbeharririk handiena hartu behar du Gizarte-Zerbitzuetan, eta ez du konformatu behar zentruak zatizki finantzatzearekin,

horiek zuhurtasunezko urruntasun batetik kontrolatuz.

Nire ustez, ardura hori publikoa izatea erreklamatzeko Gizarte-Zerbitzuen erabilzaileek, alegia, balio-urrien premia laboral eta sozialak osoro beretuko dituen ardura izan dadila.

Zehatzago izanez, honako neurriok nabari eraziko nituzke:

Zentsua, Balorazioa eta Diagnostikoa

Beti ere oraindik ez dugu ezagutzen gure lurralde historikoetako balio-urri psikikoen zentsua. Gai honetan ahalegin bat egiten ari diren arren, ekipo multiprofesionalak falta zaizkigu gure zentruetako panorama ordenan jartzeko. Oraindik ekimen pribatuak erabakitzen du zein izango diren bere zentruen usatzaile, horrela nahasmena eta kontraesanak sortuz, eta kasuren batzuetan, inolako esplikaziorik gabeko injustizia sozialak ere bai.

Beharrezkoa da, bada, zerbitzu publiko bat, balio-urri bakoitzaren zentsua, diagnostikoa, balorazioa, orientazioa eta segimendua egin dezan. Zerbitzu honek inposatu

behar du bere erizpidea balio-urri bakoitzaren premietaz, ez forma isolatuan eta bai inguruneko faktoreak ere kontutan hartuz.

Ez dut uste laborategiko balorazio bat aski denik, integratu behar den balio-urriaren inguruan ematen diren irtenbideak kontutan eduki gabe.

Legezko neurriak

Gaur egun konstata genezake, ezen legezko arau asko daudela, beren babesle-itxurarekin, balio-urriaren marjinazioa besterik lortzen ez dutenak.

Lege laboralak balio-urri gehienek duten produkzio-gaitasun errealerara moldatu beharrean daude.

Ezinbestean hautsi behar da arauen bidez egiten den partzelazioa.

Gizarte-Zerbitzuek egin behar dutena da, balio-urria bere berarizkotasunekin onartzea galarazten duten legezko baliabideak denak besarkatu, batzuk potentziatuz eta besteak malguagotuz. Modua emango du honek Eguneko Zentruak eta Okupazio-Zentruak gehiago eboluziona dezaten Enplegu-Zentru Bereziarantz eta Enplegu Arrunterantz.

Garrantzizkoa da, balio-urriak beren enpresetan gustora hartuko dituzten enpresariak lege aldetik potentziatzea, eta berebat indarreango legeria betetzen ez duena zorrotzago betetzera behartzea.

"Enklabe"en formula eta erraztasunak ematearen formulak lehenbainlehen estudiatu behar dira.

Baliabide Teknikoak

Ekimen pribatuaren ahalbideetatik begiratuki, zaila da, balio-urria lan-munduan arago inkorporatzen lagundu dezaketen baliabide teknikoak eskuratzea. Birkontratazioaren mailarik pobreena kondenturik egoteak handicamp berri bat gehitzen die gure balio-urrien ahalbideei, hauek gero eta gehiago marjinatekin dituenak, eta horrek frustatu egiten ditu bai produkzio-unitatea eta bai profesionalak, eta postura osoro inobilistak hartzeko arriskua sortzen du.

I + D unitateak behar dira, publikoak izanik, gure zentruentzat prozesu eginga-

rriak diseinatu eta proiektatuko dituztenak, eta balio-urriak kontratatu nahi dituzten enpresari guztiak aholkatuko dituztenak.

Merkatal baliabideak

Administrazioak indarreango produkzio-prozesuak segurtatzen dituzten eta merkaturuan zerbitzu-ahalbideak eskaintzen dituzten neurri-modu guztiekin babestu behar du sektorea.

G/za baliabideak

Zentru pribatuak ekonomiaz ahulak direlako, infra-horniturik gaude. Egoera hau, bizi-ro larriagotzen da balio-urri psikikoen Zentruentzat, ezen handia bait da eta utziezinekora horiek gainbegiratzeko, antolatzeke, formatzeko, administratzeko eta gestionatzeko dagoen premia; horrek berekin ekartzen duena, berriz, izaten da, kostuen garestiagotzea, eta menpetasun handi bat balio-urrien kolektiboarentzat edozein planteamendu laboral edo sozial egiteko orduan.

Gure zentruetan pertsonal kualifikatua eta behar beste estimulatua behar da jarri, gure Zentruetan biltzen diren prozesu guztien eskaerei erantzuteko modua egon dadin.

Finantz aldea

Baiki, puntu honetan erantzun du Administrazioak ondoena, baina hala ere, bistan dago oraindik ez dela behar hainbat. Kontua ez da ozta-ozta bizitzea, inbertsioak razionalizatu behar dira, gastu bikoitzak ebitatu behar dira eta erraztasunak eman behar dira proiektuaren egingarritasun sozialaren arabera.

Munta handikoa da gure zentruetako ekonomia ez kargatzea, organo publikoen aldetik erantzun arin eta malguagoak emango balira, behar izango ez lirakekeen gastuekin.

Beste ikuspegi asko ere badira, noski, destakatzea merezi luketenak eta Gizarte-Zerbitzuekin eta balio-urrien enpleguarekin loturik daudenak; baina espero dut, ezen hemen aipatu ditugunok ere lagunduko dutela, gogoetak, eztabaidak eta argitasunak egiten Gizarte-Zerbitzuen ihardun-eremu horretan.

INÁKI BERECIARTUA

ENTRE BISTA

Bada uste bat, nahikoa zabaldua, dioena, ezen Bizkaiko gizarte-zerbitzuak, Komunitate Autonomoko beste bi Lyrraideetakoak baino frankoz maila apalagokoak direla.

inondik ere, Bilbo-ren inguruan dauden industrialde handiek, beren desorganizazio urbanistikoarekin eta populazio-pilaketa handiei datzekien problema bereziek ematen duten icleie da, ezen Bizkaian ase gabe dauden gizarte-premiak Giipuzkoan edo Araban baino nabarmenagoak direia. Bizkaiko erakunde publikoei, eta bereziki Diputazioari, beren bete-beharretan egozten zaien pasibitatea eta ardura-gabezia da, Bizkaiak gizarte-zerbitzuetan omen duen atzerapena espiikatzeke beste arrazoi bat.

Egoera objektibokiago baloratzeko eta, gizarte-zerbitzuetan, Bizkaian jarraitzen den ihardunbidea hurbiletik eza-gutzeko, egoki iruditu zaigu, Bizkaiko Foru-Diputazioko arduradunekin izan genuen hitzaspertu luze bat gure arakurleei, laburturik, eskaintzea.

Jose Ignazio Barrenetxea Gizarte-Ongizateko Foru-Diputatu Jn.ak eta Juan Aristondo Gizarte-Zerbitzuetako Zuzendari Orokor Jn.ak esaten digutenez, 1983tik hona, poliki-poliki gero eta handitzenago joan da bizkaitarren ahalegina, eta garai honetan Oinarrizko Zerbitzu-sare bat eratu da, gizarte-ekintzari buruzko erizpide modernoak jarraituz, erakundeen eskaintzak non apoia-tu izan dezan.

ANTOLAKERA BERRIAK

Aresti arte, Sanitate eta Asistentzia Sozialeko Departamentua zenak, funtzio sanitarioa betetzen zuen, ia eksklusiboki, Psikia-

tria, Amagintza eta Haurtzaroko alorretan. Orain Gizarte-Ongizate deitzen dugun alorrean egiten zena zen, balio-urri, pertsona zahar eta adin-txikikoek erresidentzietan egiten zituzten egon-kostuak beretzakotu, amei haurdunaldian eta ume abandonatuei atenu, asistentzi pentsioak osatu...

Lurralde Historikoen Leg'eak (LTH) Diputazioari ematen dizkion eskuduntzei erantzuteko, Institutu bat sortzea erabaki zen. Esan daiteke, guk hartu dugun organizazio-formula erdibidekoa dela Gipuzkoako eta Arabako soluzioen artean. Gipuzkoan Gizarte-Ongizateko Departamentua egiten da kargu zuzenean, gizarte-alorreko eta gainerako gestio-arazoetako ihardunbideen zer-



Jose Ignacio Barrenetxea, Foru Diputatua eta Juan Aristondo, Gizarte-Zerbitzuetako Zuzendaria.

noakoaz. Araban, Institutuak hartzen dituzten funtzio horiek eta, Bizkaian, Departamentuaren eta Institutuaren artean banatzen dituzte; azken honen esku uzten da Zerbitzuak zuzenean gestionatzea, Departamentuak ez duen bezalako zaulitasun eta operatibitatea dauka eta. Departamentuak, bestalde, norabideak ematen ditu eta banaka tratatu beharreko gaiak markatzen.

Hona Institutuak une honetan dituzten zerbitzuak: bi zahar-klub Hirugarren Adineko alorrean (Portugalete eta Orduñan), hamabi sutondo funtzional, lau zentru adin-txikikoenak, bi haurtzaindegi, ama-umeentzako zentru bat eta jantoki sozial bat haurtzaroaren eta gazteriaren alorrean eta, azkenik, balio-urrien alorrean, erresidentzia bat ari dira eraikitzen Elorrion, adimen-urrientzat. Azkenik, Institutuak 155 pertsonako plantila bat dauka, 516 ume eta gazteri atenditzen die, horietako 366ri barnetegi-bizitzan, eta 100 zahar.

OINARRIZKO GIZARTE-ZERBITZUEN SAREA

Diputazioak eskuartean hartu duen ekintzarik garrantzitsuenetako bat, maila enbriionario batean bada ere, Oinarrizko Gizarte-

Zerbitzuen Sare bat sortzea izan da. Une honetan Departamentuak 35 asistente sozial, beste hainbeste Udaletxe eta mankomunitatetan lan egiten dutenak, finantzatzen ditu. Jadanik ekintza honek balio izan du, Udaletxe asko ados jar daitezten, ea nola "partekatu" behar duten gizarte-langilearen lanean, hau da, ea nola, antolatu udalez gaindiko zerbitzua. Bestalde, teknikari baten etorrerak bere erantzunbeharraren kontzientzia har erazi dio askotan Udaletxeari Gizarte-Ongizatearen alorrean, ze, alde batetik, ez da arraroa, beren premiak azaltzen ez dituzten hiritarrek aurkitzea, uste bait dute norberaren arazoa dela hori eta, beraz, norberak konpondu beharrekoa. Bestalde, berriz, zenbait udaletxeek ere, gero eta gutxiago uste dute, zorionez, eta, zati batean Oinarrizko Zerbitzuetako gizarte-langileei esker, lehen esan bezala, Gizarte-Ongizatearekin loturik dauden arazoak Udaletxearen ardurapekoak ez direnik.

Oinarrizko Gizarte-Zerbitzuekin, eskariak jaso eta bideratzen dituzte Udaletxeek. Hiritar bati sortzen zaion edozein gai edo arazo, Gizarte-Zerbitzuen Programaren ardurapekoa baldin bada, norberaren bizilekuko Udaletxearen Oinarrizko Zerbitzuan planteatu behar da. Adibidez, arazoa adin-txikiko bati dagokiona bada, Oinarrizko Zerbitzuak

jasotako informazioa Diputazioko departamentura igarotzen da; eta han "hartarako dagoen" balorazio-batzorde batek estudiatzen ditu problema eta atenditzeko formularik efikazena eta gero behar den laguntza preskribatzen du.

Adin-txikikoen kasuan Batzordea osatzen dutenak izaten dira:

—IFASko adin-txikikoen Zuzendaria, lehen-dakari bezala, eta bokal bezala:

—IFASko asistente sozial bat.

—IFASko psikologo bat.

—IFAS Zentruko zuzendari bat.

—Departamentuko adin-txikikoen Sekzio-ko Burua.

—Adin-txikikoen Tutoretzako Auzitegiko bi kide.

Teorian ez dago udal partaidetzarik balorazio-Batzordeen mailan, baina eragozpenik ere ez dago alkate eta zinegotziek horietan parte hartzeko.

Pentsatzen ari dira, ea Udaletxeek ez ote luketen finantzaterik izango, minimoki behinik, bertako auzolagunek okupatzen dituzten plazen kostua, gaur egun Diputazioak bakarrik ordaintzen duela eta. Jakina denez, lehengo Erregimen Lokaleko Legean, Udaletxeak egonaldi horienn kostu-erdia ordaintzeko konpromisua zeukan. Orain bilatzen dena ez da Udaletxeei partaidetza ekonomiko garrantzitsu bat ordain eraztea, eta bai areago Udaletxeei ardura handiagoa har eraztea beren herritarrei Gizarte-Zerbitzuen bidez eskaintzen zaizkien destino eta soluzioetan.

ETXE-LAGUNTZAKO PROGRAMA

Etxe-Laguntza izan da inondik ere Bizkaiko Gizarte-Zerbitzuek ikusgarrienik desarrolatu duten alorretako bat. Programa hau 91 udalerritan dago ezarria eta 1.700 onuradun atenditzen ditu, 800 etxe-laguntzailerekin eta 1987rako 310.500.000 pta.ko aurrekontu batekin. Fondo hauen partiketa udalerriko jende-kopuruaren arabera egiten da eta, kontuak garbitu ahal izateko, Uda-

letxeak periodikoki informatu behar izaten du, zenbat bezero dauzkan eta nolako prestazio-motak egin dituen.

Etxe-Laguntzan Udaletxeak berak parte hartzen du Programan asignatutako ordu guztien % 25arekin. Honela zuzenean arduratzen eta konprometitzen da Zerbitzuaren antolakuntzan eta hori ondo administratzen'.

Bezeroen esleipena, moduluen definizioa, eta bestelako zenbait organizazio-ikuspegi, Udaletxearen kontura egiten dira. Diputazioan egiten dugun bakarra da, gehienezko prestazio-tope bat jarri, orain hileko 40.000 pta.tan dagoena. Kopuru horretatik gora kontsideratzen da, beste laguntza-formula batzuk erabili behar direla autua den problemarekin.

URGENTZIA SOZIALEKO FONDOA

Beste ekimen bat, gure ustez Oinarrizko Gizarte-Zerbitzuak potentziatzeko interesgarria dena, Urgentzia Sozialeko fondoaren sorrera da. Gizarte-langileek autonomiagune bat izaten dute problema horiei ekiteko, zoritxarrez sarri izaten bait dira eta ekintza bizkor bat eskatzen dutenak gainera, nola diren: etxegabeko pertsonak, jateko edo janazteko baliabiderik ez duen jendea, batzordeak bildu, baimenak izapidetu eta ohar guztia egin arte zain egoterik ez daukatenak. Sistema honen bidez gizarte-langileak ekiten dio problemari eta "a posteriori" azaltzen du emandako laguntzaren izaera eta munta.

300 bat dira Urgentzia Sozialeko Laguntzak eta hogeit hamar bat Udaletxearen bidez eman izan dira, atenditutako kasu bakoitzeko batezbeste 120.000 pta. direlarik: guztira 36 milioi pta. inguru urteko kontuan.

DIPUTAZIOEN GIDAKERIA

Esaten da, ze Diputazio honek, eta besteek areago oraindik, fondoak Udaletxeetara transferitzeko erabiltzen duen prozedurak, programa konkretuak finantzatzu egiten duenak —"finalista" tipoko finantzaketa deitutako litzatekeenak alegia— libertatea kentzen diela korporazioei, autonomia mugatzen diela, eta paternalista moduko gidakeria



Juan Aristondo

bat adierazten dueia. Daitekeena da. Baina, egia esan, Programa konkretuak definitzea izan da lehen pausoa, Udaletxeetan ekintza sozialeko dinamika bat inplantatzen has-teko, Oinarrizko Gizarte-Zerbitzuen Alorra dela medio batipat.

Udaletxeek tradizio eskasa zuten Gizarte-Ongizatearen alorrean. Gainera, problema larri eta urgenteak ere badauzkate plante-turik, udal-bizitzan tradizio handiagoa duten alorretan, urbanismo-kontutan hain zuzen; eta hirugarrenik, dena dago esan beharra, oso kontzientzia eskasa dago Udaletxeek Gizarte-Zerbitzuen alorrean duten erantzun beharraz. Alkate bat kontzeptu askorengatik zorpetu daiteke, polikiroldegi bategatik kasu, baina nekez zorpetuko da gizarte-langileak kontratatuz. Azken batean, noski, errentagarritasun politikoa delakoarekin, eta jendeak gauza batzuk besteak baino areago eskertzen dituelakoarekin lotua dago pos-tura hori.

Nolanahi ere, ahalik eta gehien saiatu nahi dugu Departamentuaren iharduketa argitzen, Udaletxeek zeri egon jakin deza-ten, eta beren ekintza osagarriak egikaritu ditzaten. Honela, gure asmoa da, Hirigintzako Plan Foral bat dagoen bezala, izan dadila Gizarte-Zerbitzuen Plan-Foral ere, eta horren bidez defini daitezela zehatzago era-kundezko konpetentziak, orain gutxi-asko teo-ria mailan definiturik daudenak.



Jose Ignacio Barrenetxea

IKUSPEGI EKONOMIKOAK

Oso zabaidua dago ideia, ezen Bizkaian Gizarte-Zerbitzuen alorrean egiten den esfor-tzu soziala, beste lurralde historikoetan egi-ten dena baino eskasagoa dela. Agian lehen bai, eta hobeto esan, hori egia zen lehen. Araban, kontzertuak ematen zuten bide guz-tiok dakiguna egiteko, eta gainera Gasteiz-ko Udaletxea, aparteko pisu espezifikoa bait du han, aurreiari izan da gauza askotan eta exenplu ona eman du, gero arrazoi handi edo txikiagorekin, iurralde osora zabaldu dena. Bizkaiari beste horrenbeste gertatu zaio, baina kontraka. Bilbo oso udalerrri zai-la da, problema oso larriak dituena, eta besterik gabe ez dago lurraldearen enpara-tura estrapolatzerik. Gipuzkoan, aitortu beha-rra dago, oso handiak izan dira asoziazio-nismoa eta ekimen pribatua, eta lan handia egin dute.

Esfortzu handia egin dugu gastua razio-nalizatzen ere, hain garestiak ez ziren bideak aukeratuz, baina asistentziaren kalitateari mozi erazi gabe. Adibidez, adimen-urri sako-nen kasuan, argi eta garbi Egunezko Zen-truaren bidetik jo dugu, eta une honetan esan genezake, gaur egun Bizkaian ez dagoe-la benetako barnetegirako plaza-eskerik pertsona-modu hauentzat.

Gastua razionaiizatzeko bide honetatik aurrera jotzeko asmoa daukagu, biztanle-



riaren benetako ahalbide eta premietara moldatuz, eta desoreka sektorialak eliminatzen saiatuz. Gure xedea da, maila bateko kalitatea duten moduluak subentzionatzea, ekimen pribatuak jakin dezan, zeri egon eta, batez ere, praktikan ematen diren bidegabekeria asko ebitatzea. Guk kopuru jakin bat ipintzen dugu plazako, premien azterketa bat egin ondoren; gero bertako erakundeak hobekuntzarik sartu nahi badu, zerbitzu osagarriak, alferrikakoak izan gabe ezinbestekoak ere ez direnak, orduan erakundearen bezeroek edo arduradunek ordaindu beharko dute diferentzia.

Dena dela, zenbakiei jaramon eginez, horiek bait dira hemen kontutan eduki beharrekoak, esan genezake, Gizarte-Zerbitzuen aurrekontu totala, 1983an 3.983,9 milioi pezetakoa izan zena, 6.118,2 milioiko izatera igaro dela, noski, sanitate-gastuak ere barne daude, garai hartan Diputazioak munta handiko eskuduntzak zituen alorra bait zen hori. Hertsiki, Gizarte-Zerbitzuetarako eta egitura eta zerbitzu orokorretara destinatutako partidei lotzen bagatzaizkie, beste 1.404,8 milioi pezeta gehitu behar zaizkie lehen esandako 6.118,2 milioi pezetei, eta orduan gehikuntza ehuneko hirurehun baino handiagokoa da.

Nabaria da, beraz, urte hauetan egindako esfortzua, eta konparaziotan hasiz gero, ez dut uste Gipuzkoan egiten denetik biziro

urruti egongo garenik. Arabari dagokionez, gastatu gehiago egiten da, noski, baina egia ere bada, zerbitzuak gero eta garestiago ari direla egiten. Azkenik kontutan hartu beharra dago, garrantzitsua dela Bizkaian Aurrezki-Kutxa bezalako erakundearen parte hartzea gure sektorearen barruan, ze sostengatu ere horiek egiten bait dituzte, adibidez, zahar-etxeak, eta hau ez dute beste lurraldeetan egiten; esfortzu sozial hau, berriz, ez da ageri aipatu ditugun zenbakietan.

